

# Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2001eko azaroaren 23a / 562. zenbakia

## Jose Maria Arizmendiarrrieta

**25 urte eta gero,  
oraindik ere  
bere ekarpena bizi-bizi**



**ORAIN ETA HEMEN: OSOKO BILKURA/8 • KIROLA: ANDER CORGUERA JARAMAN/10**



**TERRANO. AUKERA  
ASKO DAUDE. BAINA  
ONENA BAKARRA DA.**

**NISSAN TERRANO, ORAIN  
300.000 PEZETARAINOKO  
BEHERAPENAREKIN. 1.803,04 €**

ESAN ZIDATEN TERRANO LEGENDA BAT ZELA ETA  
LIDERRA LUR OROTAKO IBILGAILUETAN.  
ETA NIK ZUEI ESAN BEHAR NIZUEN,  
BAINA PENTSATU NUEN, EZER ESAN BAINO  
LEHEN, PROBATU EGIN BEHAR NUELA.  
ORDUAN, GIDOIA ALDE BATERA UZTEA ERABAKI  
NUEN. EZ DAKIT ZELAN ESAN, BAINA  
PROBATZEN BADUZU, ULERTUKO DIDAZU.

**5** URTEKO  
BERMEA  
KM MUGA BARIK

**ALDIBI AUTOAK, S.A.**

Zigarrola Kalea, 1 - Tel. 943 71 20 02 - 20500 Arrasate

**KALEINKESTA/ Internet ibiltzeko ohiturarik badauketzu?**



**JORGE MARKIEGI**  
Langillie



**JULEN BELATEGI**  
Ikaslie



**VERONIKA MARTÍN**  
Langillie



**CARLOS OLABE**  
Erretiraue



**EVA PALMA**  
Langillie



**MARTA DEL CAMPO**  
Ikaslie

Bai. Normalien ibiltzen dot banku transferentziak egiteko edo oportetan juen aurretik ze leku eta ze eguraldi dagoen ikusteko. Urte pare bat dala hasi nitzen, eta ondo dago.

Bai. Gehixenbat, informaziñue topau, txat horretan ibilli eta mensajiek bieldu. Lehen, liburutegixen ibiltzen nitzen, eta oin, etxien. Txarrena, geldue eta garestixe dala.

Bai. Urte bat dala hasiko nitzen. Danetik begiketan dot, medikuntzako gauzak eta holan. Txarrena, motel samarra dala, baiñe internetek aukera nahikotxo emuten dittu.

Ez. Ordenadoriek eta horreik guretako ez die, gure urtietan halakuek ibiltie... Biherrien dabitzenendako aproposague da. Ondo dagoela pentsetan dot, baiñe ez nau tentetan.

Ez, oso gutxi. Etxien badaukogu, baiñe ez naz ibiltzen. Bilddur apur bat emuten dust ordenadoriek. Ikastaroren bat egittie nahiko neuke, baiñe oin, denpora barik nago.

Bai, apurtxo bat. Oin dala urte bi-edo hasi nitzen, gehixenbat, korreuekin. Oin hasi naz informaziñue tope-tan. Ondo dagoela pentsetan jat, informaziño asko atara leike.

**TXALOAK ETATXISTUAK**



**TXALOAK BIRZIKLAPENA** Azkenaldian zenbait erakunde birziklapenaren aldeko kanpainak bultzatzen dabilta, baina arrasatearrei joera hori ez zaigu arrotza egiten. Izan ere, Arrasaten badira urte dezente papera eta kartoia, beira eta ontziak bereiztu eta banan-banan jasotzen direla. Eragiten dugun kutsadura guztia kontuan hartuta, birziklapenaren inguruko pauso txikiak egitea garrantzitsua da.

**ETABARRUAN...**

ORAIN ETA HEMEN /7

**Bi galdetegi sasoi berean**

Egunotan bi inkesta egiten ari dira Arrasaten: zentsua berritzeko eta etxebizitzan gaineakoa.

KIROLA /11

**Santamas Txapelketa**

Martitzenean, Santamas Txapelketako partiduak jokatu zituzten senior mailako pilotariek.

KULTURA /14

**Numen-en diskoa kalean**

Numen taldeak diskoa kaleratu du Goimusic diskoetxearekin eta gaur aurkeztuko du gaztetxean.

**ASTEKODATUA**

**7.884**

**MILIOI ONARTU DITUZTE AUTOBIDERAKO**

Aldundiak 7.884 milioi pezeta onartu ditu Eibar-Gasteiz autobideko Elorregitik Epelera joango den zatia egiteko. Datozen hiru urteetako aurrekontuekin finantzatu dituzte lanak.

**BESTEKEKESANA**

**“Euskal Herrian dauden instituzio ezberdinen ezaugarriak aztertu beharko ditugu hasteko: oro har, nola funtzionatzen duten ikusi, ia emakume sailik dagoen ala ez, zer diru kopuru erabiltzen duen, eskumenak zeintzuk diren eta erabakiak nork hartzen dituen, besteak beste. (...) Epe motzean berdintasunaren lege bat egitea da Udaltzaren helburu nagusia, denon artean eztabaidatzea, eta, ildo horretan, bertako informazio guztia baliagarria izango zaigu. (...) Egun martxan dauden instituzioek dituzten alde onak eta txarrak ikusita zer aldatu eta zer hartu dezakegun aztertuko dugu. (...) Emakume guztiak ados gauden zerbait antolatzeke aukera izugarria daukagu aurrean”.**

**UTZUNE URRIZALKI GARA/01-11-20**

**HERRITARRENBERBAK/ Eneko Barberena**



*Udazken garaiko utopiak*

**P**ostmodernia honetan, badirudi utopia oro baliogabetu dela. Badirudi urrun gertzen direla Telesforo Montzonen hitzak: “Zuek, utopikook, askatuko duzue Euskadi! Hitz hauek hobeto ulertzeko, Joxe Ripiauren abesti batera jotzea izango da hoberena: *La utopia es como el horizonte. Das un paso y el horizonte se aleja un paso. Das otro paso y el horizonte se aleja otro paso. Entonces, ¿para qué sirve la utopia? Para eso, para caminar.* Eta abestian moduan, guk ere ibili beharra daukagu, pausoz pauso, tipi-tapa, gure ametsetarantz. Eta utopikook askatzen ez badugu Euskadi, nork bestela?

Garai hauen beste ezaugarri bat “pasotismoa” da, alor ezberdinetan. Askotan hitz egin da pasibotasunari buruz, eta horregatik interesgarriak dira alor honetan Mumia Abu Jamalen hitzak: *La gente dice que pasa de política; no se implican en nada y no quieren*

*implicarse, pero en realidad ya están implicados. Su implicación se disfraza de indiferencia o desinterés. Es el silencioso consentimiento de los millones de personas que sostienen el sistema. Cuando no te opones al sistema, tu silencio se transforma en complicidad y sirve para*

**“Postmodernia honetan, badirudi utopia oro baliogabetu dela. Utopikook askatzen ez badugu Euskadi, nork bestela?”**

*mantenerlo en marcha. Mucha gente dice que es perjudicial resistirse al sistema, pero en la actualidad, es perjudicial no hacerlo.*

Eta zergatik utopiari buruzko kontu hau? Udazkenean gaudelako eta muntaia judizialek ere udazken kutsua dutelako. Zenbaitzuek ez dakitena da udaberria ere iritsiko dela eta enbor beretik haziko direla besteak. Hala ere, uste dut badela ordua irtenbide bat aurkitzeko behin betiko. Hostoen erorketak balioko al du kimu berrien bizia bermatzeko, behintzat!

P.S.: Zera, nork jartzen dizkie izena George Bushen gerra-operazioei? Eta Garzonadei?

**Arrasate**

Otalora Lizentziaduna, z/b  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA  
Ubane Madera,  
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA  
Arantza Lagunilla,  
Izakun Bolinaga,  
Natali Martínez  
Imanol Elortza

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala

## GOARDIAKOFARMAZIAK

**EGUBAKOITZA, 23**  
Azkoaga, Iturriotz 33. .... 943 79 79 99

**ZAPATUA, 24**  
Corcuera, Maisu Aranbarri 1 ... 943 79 22 26

**DOMEKA, 25**  
Irizar, Erguin 11. .... 943 79 12 39

**ASTELEHENA, 26**  
Amezua, Santa Marina 32. .... 943 79 09 74

**MARTITZENA, 27**  
Zabala, Zarugalde 42. .... 943 77 16 30

**EGUAZTENA, 28**  
A. Ruiz, Maala 31. .... 943 79 14 09

**EGUENA, 29**  
A. Morales, Araba etor. 17. .... 943 79 18 65

## TELEFONO JAKINGARRIAK

**ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea. .... 943 03 53 00  
Iguatorialdea. .... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak. .... 943 79 39 00  
Emakumeak. .... 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentroa. .... 943 79 90 11

**LARRIALDIAK**  
SOS Deiak. .... 112  
Gurutze Gorria. .... 943 76 55 76  
DYA. .... 943 78 71 57

**ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua. .... 943 46 11 11  
Astelehenetik egubakoitzera. .... 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan. .... 14:00etatik 08:30era  
Asteburu eta jai egumetan. .... egun osoa

**Arrasate**  
Astelehenetik egubakoitzera. .... 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan. .... 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak. .... 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. .... 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak. .... 943 03 53 11

**ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako ambulanziaz. .... 943 45 87 44

**ERTZAINZA**  
Arrasate. .... 943 79 71 99

**SUHILTAILEAK**  
Udal taldea. .... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua. .... 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea. .... 088

**MATXURAK**  
Urak (Udal zerbitzua). .... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero). .... 943 12 01 62  
Gasa. .... 900 40 05 23  
943 79 78 44

**GARRAIOAK**  
Taxiak. .... 943 79 12 22  
PESA. .... 902 10 12 10

**HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza. .... 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza. .... 943 79 81 57

**MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron. .... 943 77 01 05

## MEZAK

San Joan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz)	Domeka 10:00 (elebiduna)
11:00 meza nagusia (euskaraz)	11:00 (euskaraz)
12:30 (elebiduna)	12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz)	13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz)	Domeka 10:30 (gaztelaniaz)
10:00 (gaztelaniaz)	11:30 San Isidron (euskaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)	12:30 (gaztelaniaz)
12:30 (gaztelaniaz)	
19:00 (gaztelaniaz)	
Uribarri parrokia	
Zapatua 19:00 (elebiduna)	
Domeka 11:30 (euskaraz)	
12:30 (gaztelaniaz)	

## OHARRAK

**ARTISAU ETA ARTISTEI DEIA**  
Hainbat elkarte Gaboneta-ko azoka antolatzen dabil-tza. Deialdi zabala egin diete Arrasateko artisauei eta artistei. Jo AEDra hilaren 28a baino lehen, edo deitu 943771228 telefonora.

**KOADRILAK SANTAMASETAN**  
Herriko zenbait koadrila batzen hasi dira Santamasetan jaia girotu eta egitaraua prestatzeko. Hurrengo batzarra martitzenean, azaroaren 27an, egingo dute, gaztetxean, 19:00etan.

**BUZKANTZA BAZKARIA**  
Ardi eta buzkantza bazka-ria egingo dute Alkartetxe-an abenduaren lehen. Deitu 943712788 telefonora edo pasa zaitez Alkartetxetik azaroaren 28a, eguaztena, baino lehen.

**TORTURAREN AURKA**  
Gaur, 19:00etan, Musako-lan, Joma parean, kale bilkura deitu dute *Guztion zeregina delako torturari stop!* lelopean.

**BERBALDIA LIBURUTEGIAN**  
Arrasateko Liburutegiak azaroaren 30erako berbal-dia antolatu du Monterron-en: Teresa Duran bartzelo-narraren *Sexismoa Ilustrazioan*, Euskal Irudigileen Aretoarekin lotuta.

## AEDrenAGENDA

**BERTSOLARI TXAPELKETARA**  
Abenduaren 16an Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera joateko autobusa eta bazkaria antolatu dituzte. Garraioz eta janaz gain, sarrera barne egongo da 7.000 pezetan. Bertsozale-ko kide izanez gero, 6.000 pezetan eta 16 urte edo gazteagoek, 4.000 pezetan. Izena eman lehenbailehen.

## URBANOENORDUTEGIA

**Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.

**IBILBIDEA:** Gorostiza, Erguin B, Arimazuri, Ale-cop, Uribarri, San Andres, Garibai, Ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.


**Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.

**IBILBIDEA:** Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iña-rra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

## ORAINDELA 10URTEARRASATEN

### Eskolaz kanpoko ekintzak zapaturo

AEDk azkeneko hiru urteetan herriko umeendako eskolaz kanpoko ekintzak antolatu izan ditu zapaturo. Ekintza horien helburuak dira talde-harremanak lor-tzea eta euskal giroan murgiltzea. Aurten, goizeko ekintzetarako 102 umek eta arratsalderako 80 umek eman dute izena.



## BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

### "Sur-kaku"



1. Sudur konkorra, sudur makoa.  
—Judixo askok su-kaua eukitzen dabe.
2. Sudur konkorra duen pertsona.  
—Flakosta sur-kaku batekin zeuan bebetan.

## ARRASATE IRRATIA FM 107.7



### Arrasateko kultura eskaintza aztergai

Jose Ramon Arkauz Kultura batzordeburua eta Jon Garai Kultura teknikaria izango dira dato-rreren martitzenean irrastian. Goizeko 10:00etatik aurrera Arrasateko kultura eskaintza, Amaia antzokia eta kultura etxe berria izango ditugu hizpide.

Amaia antzokiko obrak buka-tu berri dituzte, eta abenduan inauguratuko dute, han akorde-oi txapelketa egin ahal izateko.

Bestalde, kultura etxe berria-ren proiektua ere egiten hasi dira, eta kultura etxe berria zela-koa izango den galdetuko diogu Kultura batzordeburuari: Hori guztia eta herriko kultura eskain-tza ere aztergai hilaren 27an.

### Iñigo Lamarca "Asteko Errepasoa"n

Gehitu gay eta lesbianen elkar-teko kide Iñigo Lamarca elka-rrizketatu dugu astean, eta elkarrizketa hori berriro izan-go da entzungai Asteko Erre-pasoa.

Bestalde, Ruper Ordorika abeslariari egindako elkarriz-keta zabala edo Edorta Aranari egindakoak ere berriro jarriko ditugu. Astean Bilbon prentsa arrosaren gaineko jardunaldiak egin direla-eta, prentsa mota hori izan dugu hizpide. Aldiz-karietan eta telebistetan ageri diren pertsonaien intimitatea prentsa arrosak errespetatzen ote duen erantzungo du Edortak, besteak beste.

## HAUGIROA!

**MINIMOA**  
Domeka, 18 **0°C**

**MAXIMOA**  
Zapatua, 17 **12°C**

**ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>)** **30,4 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 14	8°C	5°C	2,3 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 15	6°C	5°C	1,4 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 16	8°C	4°C	4,3 l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 17	12°C	3°C	— l/m <sup>2</sup>
Domeka, 18	9°C	0°C	7,8 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 19	10°C	7°C	14,4 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 20	8°C	7°C	0,2 l/m <sup>2</sup>

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



## ASTEKO PROGRAMAZIOA

**ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00 Albistegia  
09:30 Igo autobusera  
11:30 Albistegia  
12:00 Musika  
14:00 Errepikapena

**ASTELEHENA**  
21:00 Maiuskulaz idatzitako Rock-a

**MARTIZENA**  
21:00 Hi bizi hadi

**EGUAZTENA**  
21:00 Hitz eta pitz

**EGUENA**  
21:00 Gailurretik

**EGUBAKOITZA**  
20:00 Azkenberri.com  
21:00 Draxtor  
22:00 In session  
23:50 Asteko elkarrizketak

**ZAPATUA**  
10:00 Musika klasikoa  
11:00 Asteko elkarrizketak  
23:00 Hitz eta Pitz (errep.)  
24:00 MIR (errep.)

**DOMEKA**  
11:00 Asteko elkarrizketak  
23:00 Mikelenea (errep.)

## ASTEABIHITZETAN

### Gripearen txertoaren kanpaina amaitu da

Gripearen kontrako txertaketa kanpaina irailean hasi zen, eta aurten, Arrasaten, 3.660 txerto jarri dituzte, iaz baino 34 txerto gehiago, hain justu.

Apurka-apurka bada ere, geroago eta jende gehiagok jartzen du txertoa. Adina kontuan izanez gero, aurten txertoa hartu dutenetatik 2.925 lagun 65 urtetik gorakoak izan dira, eta hortik beherakoak, 735.

### Auto istripua San Andresen


Domeka eguerdian, auto istripua izan zen San Andres auzoan. Zauritu larririk izan ez bazen ere, gidarietako bat Arrasateko Eskualde Ospitalera eraman behar izan zuten, lepoko eta burukomina zuen-eta.

Auto istripua eguerdiko ordu bata aldera gertatu zen. Renault 19 eta Renault 5 autoek elkar jo zuten San Andres auzoaren sarreran, eta ondorioz autoek kalte nabarmenak izan zituzten. Ertzaintzak emandako datuen arabera, R5 autoa herri barruan gidatzeko onartuta dagoen abiadura baino azkarrago zihoan.

### Fagor Elektratresnak-i urrezko Q saria

Fagor Elektratresnak enpresako egosketa negozioak urrezko Q saria jasoko du. Albiste hori Begoña Igartua Fagorreko kalitate arduradunak eman zuen Goienna Telebis-tako *Ekilan* saioan.

Iaz, Fagor Garagartzako egosketa negozioak zilarrezko Q saria jaso zuen, eta aurten, Fagor Elektratresnak enpresako egosketa negozioak urrezkoa jaso du. Alberto Gorritibereak zuzendu eta aurkezten duen saioan, Begoña Igartuak egosketa negozioaren ibilbidea gogoratu zuen. Orain dela zortzi urte ISO 9001 saria jaso zuten, eta orain hiru urte Ingurumen Ziurtagiria.



### BROKANTE AZOKAK HARRERA ONA IZAN ZUEN

Asteburuan Uarkape pilotalekuan ikusgai izan den brokan-te azokak harrera ona izan du. Antolatzaileek esan dute azoka ohitura bilakatu den beste herri batzuetan jende gehiago joaten dela, baina hala ere, pozik agertu ziren lehenbiziko aldia izan dela kontuan hartuta.



### USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

## Ekialdea, gero eta hurbilago

Afganistanen egiten ari diren bombardaketa aroa hohiko kontua bilakatu da gure artean. Bazkaltzen hango pasarteak kontatzen dizkigute eta ohera joan aurretik Iparraldeko Itunak hartu dituen lurraldeak edo talibanen inguruko azkene-ko zurrumurruaren berri izaten dugu.

Izen hain handikia jarri zioten ekintza militarra

norbaitek uste baino basatia-go bilakatu da, eta militar-rrak edo gerrillakoak ez ziren auskalo zenbat pertso-na hil diren honezkerok. Bestalde, talibanak *txarrak* ei badira ere, Iparraldeko Ituneko inguruan heltzen diren zurrumurru urriak ere ez ei dira onenak.

Baliteke gauzak horrela egotea edo ez, uste duguna jasotzen dugun informazioa-

ren arabera baita. Gutxi-ki diote, adibidez, lurralde horietan dagoen petrolio, gas eta heroinaren kontrolak gobernu asko itsutu dituela.

Bombardaketekin jarraituz, beste askoren artean, zazpi kazetari hil dira azken egunotan, horietako bat Espainiako Estatukoa. Itxura denez, baina ezin ziur jakin, Iparraldeko Itunak kontrolatutako gunetatik at euren kasa mugitzea erabaki zuten, agian informazio osatuagoa eskaintzeko.

## ASTEKOIRUDIA



IKER BARANDIARAN

### GABONAK GEROAGO ETA GERTUAGO EI DAUDE, HALA DIRUDI, BEHINTZAT

Joan den eguaztenean, Udaleko langileak Gabonetan erdialde zaharrean jarri ohi diren apaingarriak zintzilikatzen harrapatu genituen. Badirudi negu honetako hotzak Gabonak hurbildu dizkigula, beharbada, elur usainak erakarrita. Bestalde, telebistan ere Gabonetako produktuak erosteko ira-

garkiak nagusi dira aspalditik, eta saltoki handie-tan lelo bera nagusitu da saltzaile eta erosleen arte-an. Zer egingo diogu, bada! Gabonei ezinikusia diotene bestea aldera begiratzea zail izango dute, eta gainerakoek familiarekin bat egin eta ederto jan eta afaltzeko parada hartuko dute. /IKER BARANDIARAN.

**OGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE

**M**  
**MEMESA**  
Industria  
hornidurak  
Tel. 943 71 24 25

**TTUKUN**

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

**PEUGEOT**  
Salmenta eta zerbitzua

**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

GIZARTEA/ On Jose Maria Arizmendiarieta, Mondragoeko Kooperatibismoaren aita

# On Jose Maria Arizmendiarietaren gertukoekin, haren gainean berbetan

UBANE MADERA

1976. urteko azaroaren 29an hil zen On Jose Maria Arizmendiarieta Eskualdeko Ospitalean. Iluntzeko 20:20 minutu zirenean geratu zitzaion bihotza, izan ere, bihotzeko arazoaren eraginez hil zen Mondragoeko kooperatiben mugimenduaren sortzailea.

Hogeita bost urte pasatu dira, baina oraindik ere On Jose Mariaren oroimena bizi-bizi dago Mondragoen, zalantza barik. Ezagutu ez zutenek ere badakite gizon hark Mondragoeko herriari eta herritarrei eman ziena handia dela, oso handia.

1941eko otsailaren 5ean iritsi zen On Jose Maria Mondragoera, herriko abade izateko. Eta hura ezagutu zutenek esaten dute oso elizgizona zela. Baina herriko abade izateaz gain, gaur egun, sekulako indarra hartu duen industria eta lan egiteko modua sortu zuen Mondragoen: Mondragoeko Mugimendu Kooperatiboa, hain zuzen ere. Hala ere, hasiera baten, eskolarekin hasi zen On Jose Maria, Eskola Politeknikoarekin edo orduko Eskola Profesionalarekin; izan ere, hark argi zeukan jakintza ezinbestekoa zela, eta horretan jarri zen buru-belarrari. Eskola hartatik irten ziren gero Mondragoeko aurreneko kooperatiba sortu zuten lehenengo ikasleak: ULGOR (Usatorre, Larrañaga, Gorroñogotia, Ormaetxea eta Ortubay) 1956ko azaroaren 12an inauguratu zuten ofizialki. Hasieran, Talleres Ulgor izen izena, eta marka komertziala Tagor izan zen, eta gero, Fagor izena hartu zuen.

## LANEAN ETEN BARIK

Aurreko guztia On Jose Mariak bultzatu zuen *hezkuntza aktiboen* emaitza da, ikasi eta lan egitearen ondorioa, hain justu ere. Eta hori lortzeko sortu zuten, 1966an, Alecoop (Actividad Laboral Escolar Cooperativa).

Eta behin hori eginda, ez zen geldi egon, ezta gutxiago ere. Haren teoria zen "garrantzitsuena ez dela bizkor joatea, baizik eta egindakoa sendotzea". Horrela, eta hark sortutako mugimenduak zituen gabeziak aztertu eta gero jaio zen Aurrezki Kutxa 1959an: "Izan ere, autofinantzaketa barik ez dago autogestiorik".

Etengabe egin zuen On Jose Mariak kooperatibismoaren alde. Hark esaten zuen "kooperatibismoa, benetakoa izateko, demokratikoa izan behar zela". Askotariko iritziak bultzatzen zituen, eta guztien arteko berdintasuna. Ondorioz, langileen

arteko harreman horizontalaren alde egiten zuen. Eta horrekin batera, argi zuen langileak enpresan bertan parte hartzeko formula bat topatzea zela egokiena. Hortik sortu zen bazkideen ideia.

Langileen osasunaz ardura-

tuta, 1958an, gaixotasunei aurre egiteko Derrigorrezko Asegurua bermatu gura izan zuen. Eta hortik gaur egunera arteko guztia denok ezagutzen dugu. Hortik eratorri da MCC (Mondragon Korporazio Kooperatiboa) eta horrek

gaur egun batzen dituen ekimen eta enpresa multzo zabala.

On Jose Maria orain 25 urte hil zen, baina hark ereindako haziak fruitu handi, indartsu eta sendoak eman ditu bai Mondragoen bai mundu zabalean ere.

Gizon harrigarri haren gainean zerbait gehiago jakiteko asmoarekin harengandik oso gertu zeuden bi pertsonarengana jo dugu: Roman Balanzategi medikuarengana eta Maria Arizmendiarietarengana, haren arreba.

ROMAN BALANZATEGI/JOSE MARIAREN MEDIKUA

## "Helburua gizarteari laguntzea zen"

Jose Maria bihotzekoak jota hil zen 1976an. Medikua izan zituen, baina gu gertukoekin egon gara: Roman Balanzategirekin. Hark kontatu digu On Jose Mariaren gainean bitxikeria batzuk.

### Zelako osasuna zuen?

On Jose Mariak gazte-gaztetatik izango zuen erreumatismo poliartikularra; hori uste dut nik, gaztetan ez nuen eta ezagutzen. Eta horrek junturak *miestu*, baina bihotza *hainkatu* egiten du. Gaixotasun horren ondorioz, bihotza handitu egiten da, neke handiagoa eragiten du...

Azkenerako, nik ezagutu nuen arako, bihotza handituta zeukan. Baina ondo ziharduen, kexarik ez zuen izaten.

### Noiz etorri zitzaion arazoa?

Buruz nabil, baina nik uste dut 1968an, On Jose Maria Madrilerá joan zela Retegi eta Monjolesekin batera Eskolako gairen baten gainean berba egitera, eta afaltzen zeudela, enbolia eman zion. Ondorioz, erdi elbarri geratu zen. Ni Madrilerá joan nintzen, zenbait medikuk ikusi zuten eta erabaki zuten onena zela balbula bat ipintzea bihotzean. 1968an, ebakuntza egin eta balbula ipini zioten Madrilen. Horrela bost bat urte iraun zuen. Poliki-poliki balbulak bere funtzioa galdu egiten du eta planteatu zuten berritza ere ipintzea, eta halaxe egin zuten. Baina zorte txarra izan zuten. Bularreko hezur inguruan ebakuntza egin zioten eta ebakuntzagalako infekzioa hartu zuen. Eguneroko-eguneroko garbitzen ibili ginen, baina handik hiru urtera oraindik osatu barik zegoen. Eta horrek asko ahuldu zuen. Gazte hil zen, 61 urterekin.

### Bazekien gaizki zegoela?

Gu ospitalera joaten ginen hura bisitatza, eta zerbait esan behar... eta behin esan nion: "Jose Mari, hobeto hago?" Sekula ahaztuko ez zaidan begirakunearekin begiratu eta esan zidan: "Hobeto zer, Roman?". Eta handik egun bira edo hil zen. Berak



"Pena handi bat: ez zekien zer zen emaztea. Horixe zuen faltan"

bazuen kontzientzia garbi hilko zela.

Urte pare bat ibili zen gaixorik, ospitalean hile pare bat.

### Zelako gizona zen?

On Jose Mariaren irudia zati eta esango nuke: pertsona moduan gizon arrunta zen, herrikoa, garbia, euskalduna... Euskal Herria eta familia, eta bereziki ama, biziki maite zituen. Eta herritar moduan, On Jose Mariaren helburua gizarteari laguntzea zen. Eta abade moduan, akaso elizkizunak eta egiteko ez zen aproposena. Baina nik uste dut Eliza elkarte moduan hartzen zuela eta gizarteari laguntzeko helburuetan lan egiten zuen hantxe ere. Bestalde, meritu handia zuen: gizartearen helburuak bultzatzea. Baina gauza penagarri bat ere bazuen hark: ez zekien zer zen emaztea, horixe zuen faltan. Uste dut emakumea izanez gero, "normalagoa" izango litzatekeela. Baina hori bai, sekulako errespetua zien emakumeei, amaren irudia buruan, edo etxeko amaren agintea...

MARIA ARIZMENDIARIETA/ARREBA

## "Familian ondo konpontzen ginen denok"

On Jose Mariarengandik gertu egon zen beste pertsona bat Maria da, haren arreba. 83 urte ditu, baina ondo asko akordatzen da On Jose Mariarekin: "Ondo konpontzen ginen elkarrekin".

### Zelako zen On Jose Maria?

Ona. On-ona. Lau neba-arreba ginen familian eta ondo konpontzen ginen guztiak. Jose Maria zen zaharrena, neu hirugarrena eta beste bi mutil zeuden tartean.

### Haren oroimen berezirik baduzu?

Bai, asko. Baina bat berezia da: gazterik joan zen seminarioa, eta han zegoela, zozketa bat egin zuten, eta anaiari bizikleta bat tokatu zitzaion; bizikleta hura etxera bidali zuen. Baina bizikleta gizonetzkoena zen, eta nik gutun bat idatzi nion, bizikletak erdian zuen palanka moztu zezan eta etxera palanka barik bidaltzeko. Baina beste nebek ezetz, haiek ez zuten gura. Eta azkenean, palanka eta guzti bidali zuen bizikletara.

Ni txatxarra nintzen eta ezin nintzen palanka gainetik ibili. Baina azkenean, ikasi nuen ibiltzen.

### Asko egoten zen anai Jose Mari etxean?

Oporretan bakarrik etortzen zen. Eta gero, Gabonetan hama-bost bat egun-edo egiten zituen.

### Entzunda dugu zure anai amazalea zela...

Bai. Hark gu guztiok estimatzen gintuen, baina hemen oporretan egoten zenean, amak gobernatzen zuen. Goizetan Barinagara etortzen zen eguneroko meza entzuterara, eta etxera itzultzen zenean amak gosaria gertu izaten zuen.

### Orduan, amazuloa izateaz gain, amaren kuttuna ere bazen Jose Mari?

Bai, bai. Aitak ere estimatzen zuen, bai bera baita guztiok ere, baina aita baino gehiago arduratzen zen ama.

### Argia zen Jose Mari? Neba-



"Jose Maria argia zen eta hark bazekien bere beharra egiten"

### arreatatik argiena?

Hura argia zen, bai. Eta esaten zuen gu ere argiak ginela. Niri esaten zidan: "Oso azkarra zara, baina baita oso burugogorra ere". Eta nik esaten nion: "Zure moduan". Orduan, anaiak esaten zuen: "Jakina, neba-arrebak gara". (barreak)

### Bestalde, zure anaiak erakutsi zuen negozioetarako eta ona zela...

Bai. Hark bazekien bere beharra egiten.

### Eta hori odolean daramazue anai-arrebok edo Jose Mari zen berezia?

Besteek ere... hurrengoak, adibidez, baserrian egiten zuen beharra; eta gazteena ere ikasten ez zen batere txarra.

### Zu zeu askotan etorri izan zara Mondragoera?

Sarri. Batez ere, hura bizi zenean.

### Berriro ere etorriko zara Mondragoera?

Datorren asterako dugu hura joateko gonbidapena, egubakoitzetarako. Hortaz, horixe joango naizela!

## Etxebizitzetzi buruzko eta zentsua berritzeko galdetegiak


UBANE MADERA

Egunotan bi galdetegi egiten ari dira herrian: bata, etxebizitzetzi gainekoa, eta bestea, zentsua berritzeko. Batak ez dauka zerikusirik bestearekin. Baina herritar guztiek ez dute hori argi ikusten.

Egunotan inkesta bi egiten ari dira Mondragoen: bata, zentsua berritzeko. Hamar urtean behin egiten da hori.

Eta bestea, herriko etxebizitzetzi gainean informazioa lortzeko, hain justu. Horrekin jakin gura dute zein den herrian dagoen etxebizitzetzi eskaera eta eskaintza, eta zenbat etxe huts dagoen, besteak beste.

Kontua da, bi inkesta izanda, etxebizitzetzi askotara bi bider joan direla galderak egitera. Eta inkestak egiten ari direnek adierazi digutenez, herritar asko nahastu egin da, pentsatu dute bi bider joan direla inkesta bera egitera.



UBANE

Zentsua berritzeko bulegoa IMIn dago.

### ZENTSUA BERRITZEKO

Baina ez da horrela. Esan dugun moduan, galdetegi bat zentsua berritzeko da; hau da, herrian erroldatuta dauden herritarren zerrenda eta herrian dagoen etxebizitzetzi zerrenda berritzeko.

Lan hori Euskal Herriko eta Estatuako herri guztietan egiten ari dira, izan ere, hamar urtean behin berritzen du zentsua Estatuako Estatistika Institutuak. Abendura arte segituko dute galderak egiten.

### ETXEBIZITZETARAKO

Beste galdetegiak, berriz, etxebizitzetzi gainekoa da bakarrik. Egitamu Orokorrak zehaztuta, herriko etxebizitzetzi egoera jakin gura du Udalak. Hau da, herrian zenbat etxebizitzetzi dagoen saltzeko, zenbatek gura duten erostea, zelakoak diren eta zenbat etxebizitzetzi huts dauden, adibidez. Aztiker enpresa ari da lan hori egiten, Udalaren enkarguz, eta datorren asteko amaiera aldean bukatzea espero dute herritarrei egin beharreko galdetegiak.

Hortaz, ikusten den moduan, galdetegi batek ez du zerikusirik bestearekin eta komeni da norberari tokatuz gero, biak erantzutea.

## Herrian dagoen zarata neurtzea erabaki du Arrasateko Udalak

UBANE MADERA

Herriko zenbait lekutan zarata larregi dagoela pentsatzen du Udalak. Eta, hori argitzeko, ikerketa egitea erabaki du oraingo asteko Gobernu batzordeak. Orain, ikerketa adjudikatuko dute eta gero hasiko dira lanean.

Zarata neurtzeko planak, guztira, zazpi fase edo aldi izango ditu. Izan ere, egin beharreko lana nahiko garestia da eta, hortaz, zatika egingo dute, poliki-poliki. Halaxe adierazi dio lan

hori egingo duen Ingurumen batzordearen buruak, Joseba Ugaldek, Arrasate Irratiari. Ugaldek jakinarazitakoaren arabera, orain, lan hori egiteko adjudikazio epea zabaldu dute eta Udalak enpresa espezialduetara joko du, haiek proposamenak egiten ditzaten. Gero, egokiena aukeratuko dute eta zarata neurtzen hasiko dira.

### LEHENENGO ZATIA

Lanaren lehenengo zatian herrian dagoen zarata neurtu, aztertu eta zehaztuko dute. Horretarako, mapa bat marraz-

tuko dute, zarata irudikatzen. Eta behin ikerketa amaituta, zarata larregi dagoen lekuetan zein neurri har daitezkeen erabakiko du Udalak. Adibidez, biribiletan eta zirkulazio handiagoa izaten den lekuetan beste leku batzuetan baino zarata handiagoa sumatu ohi da...

Guztira hamabost milioi pezetako aurrekontua du egitasmo osoak. Lehenengo zatia egiteko, berriaz, hiru milioi peza inbertituko ditu. Eta Eusko Jaurlaritzak milioi eta erdi pezetako dirulaguntza emango dio lehenengo zati hori egiteko.

## LABUR

### Alde zaharreko piboteak zabaltzeko giltzak erosiko dituzte larrialdi zerbitzuendako

Ertzaintzak, zenbait hileta zerbitzuek eta Gurutze Gorriak alde zaharreko piboteak zabaltzeko giltzak izango dituzte. Halaxe erabaki du oraingo asteko Gobernu batzordeak. Giltza bereziak izango dira, pibote guztiak zabaldu ahal izateko, hain zuzen ere. Horrela, larrialdiren bat gertatuz gero, berehala sartu-irten ahal izango dira egin beharrekoak egiteko. Ia 140.000 pezeta inbertituko ditu guztiendako giltzak erosteko. Helburua da piboteak jarri zirenetik izan diren protesta batzuekin amaitzea.

### Lan-osasuna eta ingurumena izango ditu hizpide CCOO sindikatuak astelehenean

Lanean sortzen diren osasun arazoak aztertuko ditu CCOO sindikatuak datorren astelehenean Monterronen, 18:00etan. UGTko Lan Osasun eta Ingurumen arduradunak, Jesus Uzkudunek, lanean agertzen hasi diren gaixotasunak salatuko ditu (biriketako minbizia, biriketako fibrosia...); gaixoen alde egingo du eta biktimendako kalte-ordainak eskatuko ditu. Eta nahiz eta amiantoaren erabilera arriskutsua izan, oraindik ere erabiltzen dela salatuko du.


### Lanpostu finkoak sortzeagatik dirulaguntzak emango ditu Udalak abendura arte

Lanpostu finkoak sortzeagatik dirulaguntzak eman ohi ditu Udalak, eta oraindik ere, eskaerak egiteko epea zabalik dago, abenduren 10era arte, hain justu ere. Lanpostu finko bakoitzeko sei ehun pezeta emango ditu Udalak. Iaz, hamaika milioi pezeta baino gehiago eman zituen laguntza mota horrekin, eta guztira hemezortzi lanpostu berri sortu zituen.



### Autoa kiskalita

Argazkiko autoa ordu eta erdian kiskali zen astelehenean Maailan. Mondragoeko gazte batena da, eta ustez, Otaloratik zihola, su garrak eta kea ikusi zituen motorretik irteten. Orduan, Maalara sartu eta autotik irteten zen. Suhiltzaileak berehala iritsi ziren eta sua itzali zuten; baina suak kalteak eragin zituen alboko auto baten, Elkoron eta pareko eraikineko atarian.



## KUTXA-REAL SOCIEDAD TXARTELAK Oso Realzaleentzat bakarrik



Zu bezalako pertsonentzat, Reala oso modu berezian sentitzen dutenentzat, pentsatuak daude Kutxa-Real Sociedad Maestro eta MasterCard txartel berriak. Txartel hauek erabiltzeagatik, prestazio finantzario guztiez gainera, opariak ere lortu ahal izango dituzu. Anoetako partiduetarako sarreraren zozketan parte hartu, eta bi pertsonarentzako bidaia baten zozketan ere bai,

gure taldea bere desplazamenduetako batean laguntzeko.

Gainera, 2002ko otsailaren 1a baino lehen eskatu eta erabiltzen baduzu, CD zoragarri bat, Txuri-Urdin abestiaren 5 bertsio berezi biltzen dituen, eramango duzu opari.



Eskatu kutxaren bulegoetan edo [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidean.

**OSOKO BILKURA/** Udalbatzarrak hainbat gai aztertu zituen

# Izatezko bikoteen aldeko eta atentatuen aurkako mozioak

UBANE MADERA

Oraingo hileko osoko bilkuran landutako gaien artean, besteak beste, lau mozio jorratu zituen udalbatzarrak. Bata, izatezko bikoteek beren elkartzea zeremonia baten bidez ospatzeko eskubidearen aldekoa, eta beste hirurak, atentatuak gaitzesteko.

Gayen, lesbianen eta transexualen eskubideen alde lan egiten duten Gehitu eta Hegoa elkarteek izatezko bikoteen gainean mozioa aurkeztu dute. Eskatzen dute Izatezko Bikoteen Erregistroan izena ematen duten sexu bereko bikoteek eskubidea izatea euren elkartzea zeremonia baten bidez ospatzeko; hori, Udaletxean egiten diren ezkontza zibilek dituzten baldintza berberekin.

## AZKEN ATENTATUAK

Bestalde, Jose Maria Lidonen hil-keta eta azken atentatuak gaitzetsi zituen EAk. Alderdi politikoei elkarrizketa eta negoziazioa eskatzeaz gain, Estatuko gobernuari eskatu diote euskal herritarren eskubideak onartzea eta espetxe legeria betetzea, besteak beste. ETari, berriz, ekintza armatuak bertan behera uztea.

EAJk, bere aldetik, gaitzetsi egin zituen joan den irailaren 8an "Ertzaintzaren eta Ertzaintzaren egoitzaren aurkako ekintzak" baita "edozein estortsio edo indarkeria adierazten duten ekin-



Bikote heterosexualak dituzten eskubide berak eskatzen dituzte homosexualak.

tza guztiak ere".

Eta Gazte Abertzaleak-ek, EAren gazteriak, hain justu, irailaren 11ko atentatua gaitzetsi zuten eta Afganistanen kontrako "neuririk gabeko erasoaldi mili-

tarra deitoratu" zuten, besteak beste.

Hala ere, informazio hau idatzi genuenean, bilkura egin barik zegoen, hortaz, ez dago jakiterik mozioak onartu ziren edo ez.

## Gazteen enpleguaren aldeko kanpaina hasi du UGT sindikatuak

UBANE MADERA

Enpleguaren egonkortasuna eta segurtasuna bultzatzeko kanpaina abian jarri du UGT sindikatuak. Euskal Herrian eta Estatuan 500.000 sinadura batu gura dituzte. Lortuz gero, Espainiako Kon-

gresuan lege-proposamena aurkeztuko dute. Datozen hilabetetan hasiko dira sinadurak batzeari lantokietan.

Kanpaina hori aurkezteko, UGT sindikatuko Euskal Herriko idazkari nagusi Carlos Trevilla izan zen hemen. Eta besteak bes-

te, adierazi zuten Euskal Herrian gazteek lan arazo ugari dituztela.

Horrekin batera, Partidu Popularraren politika gogor salatu zuten Carlos Trevillak, eta EAJren eta PPren politika ekonomikoak oso antzekoak direla gaineratu zuten, erabat kontserbadoreak biak ere.

## LABUR

### Ia zortzi mila milioi pezeta Gasteiz-Eibar autobideko Arrasatetik Bergarainoko zatirako

Eibar-Gasteiz autobideko Elorregitik Epelerainoko zatia dela-eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu egin du lanok egiteko aurrekontua. Hain justu, ia zortzi mila milioi pezeta inbertituko ditu. Lanon finantzaketa 2002, 2003 eta 2004. urteetako aurrekontuekin egingo dute.

Orain, lan horiek adjudikatzeko epea zabalik dago, hortaz, enpresak proposamenak aurkeztuko dituzte. Gero erabakiko da zeinek egingo dituen lanak, eta adjudikatu egingo dituzte. Hortaz, datoren urtera arte ez dira lanak egiten hasiko.

### Udal Araudi Organikoa aldatzea eta Garaia egitasmoa, udalbatzarrean hizpide

Lau moziorekin batera, udalbatzarrak beste hiru gai ere landu zituen eguneko batzarrean. Batetik, Garaia egitasmoa dela-eta, Uribarri auzoan Udalak gorde dituen lursailen zerrendaren kontrako birjarpen errekurso bat; bestetik, Batzorde Informatzaileak ospatzeko quoruma dela-eta, Udal Araudi Organikoa aldatzeko proposamena ere aztertu dute. Azken gai horri buruz, kontua da, gaur egun, Batzorde Informatzaile bat egiten dutenean, deialdi bakarra izaten dutela zinegotziek. Gainera, behin deialdia egin da, gehiengo osoa behar dute batzarra egiteko. Orain eskatzen dutena da, lehenengo deialdiaz gain, bigarren bat ere izatea, ordu laurden geroago. Eta gainera, elkartzen diren zinegotziek batzarra egin ahal izatea, gehiengo absolutua behar izan barik; hori bai, gutxienez, bi zinegotzi elkartu beharko dira batzarra egiteko.

### Ludoteka berria datorren urte hasierarako prest egon ahal izango litzatekeela diote

Erdialdean zabaldu behar duten ludoteka berriko lanak aurrera doaz. Oraingo asteko Gobernu batzordeak dagoeneko ekipamendua erostea adjudikatu du, hau da, ludoteka berriak behar dituen altzari eta bestelakoak.

Ludoteka berria Okendo kalean ipiniko dute eta berrehun metro koadro inguru izango ditu. Kulturako teknikarien aurreikuspenen arabera, baliteke barruko lanak dagoeneko bukatuta egotea. Edozelan ere, gero, altzariak jarri eta gainerako ekipamendu guztia prestatu beharko dute.

Orain arte moduan, Okendo kaleko ludoteka berria Txatxilipurdi elkarteak kudeatuko du. Igarriko ditugun berritasunen artean, adibidez, ume eta gaztetxoendako bereiztutako leku bat izango da.

## Arabako Foru Aldundia eta LKS lankidetzan

UBANE MADERA

Arabako Foru Aldundiak LKS enpresari adjudikatu dio bere sistema informatikoa gizartearen behar berrietara egokitzeko lana.

Arabako Aldundiak gura du herritarrei ahalik eta erraztasun handienak ematea bere zerbitzuak

erabiltzeko. Horretarako, zerbitzu digitalak indartu eta egokitu gura ditu, informazio teknologietan eta telekomunikazioan dauden berritasunak aprobetxatuta. Helburua da Administrazio Publiko hobeto funtzionatzea. Eta, hain justu, lan hori egin beharko du LKS enpresak.



**ALDEDI**  
MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 05 • Faxes: 943 79 13 84

### JEMI TAPIZ DENDA

- Altzarien konponketa eta tapizaketa
- Ibilgailuen konponketa eta tapizaketa
- Sofa-zorroak neurri


Lantegia: Errebuelta, 6 behea  
Tel.: 943 79 56 23/606 88 33 38  
20500 ARRASATE

## BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak


Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82





## MIREN ZURIÑERI:

**M**iren Zuriñe aurtengo Nafarroa Oinez jaiari izan da hainbat lagunekin batera, eta haien esanetan, bikain igaro zuten eguna. Egun hauek lagunekin elkartzeko oso aproposak izaten dira, izan ere, gaur egun, zaila da lagunekin gura adina egotea. Anek eta Nereak ohar bat bidali gura diote argazkiko protagonistari: lehen izandako lagun-minak izaten jarraitu gura dute, nahiz eta lehen beste ez egon elkarrekin.



## RUPER ORDORIKA GEUREAN

**R**uper Ordorikak disko berria kaleratu du, eta martitzen goizean haren bisita izan zuten Arrasate Irratiko lankideek. Oñatiarrari lan berria promozionatzea tokatzen zaio orain, eta komunikabideek nahiko lan emango diogu oraingo egunotan. Hark ere esker onez hartzen duen lana, seguru!

## BROKANTE ERAKUSKETAK UTZI DIZKIGUNAK

**J**oan den asteburuan, Brokante erakusketa izan zen Uarkape Udal Pilotalekuan, eta harrera polita izan zuen. Esan beharrik ez dago gauza bitxi asko ikusi genituela han, eta beste gauza batzuen artean, pasaporte eta ibiltzeko baimen hauek ikusmina piztu zuten hara hurreraturakoen artean.



# LASAGABASTER



A. CORCUERA

Ander Corcuera, azaroaren lauean Portugaleko Estoril zirkuituan izandako lasterketan.

AUTO LASTERKETAK

# Ander Corcuera Jaraman izango da asteburuan Renault Clio autoarekin

Arrasateko pilotuak bi lasterketa izango ditu oraingo asteburuan Madrilgo zirkuituan

XABIER URZELAI

Joan den astean Xerezen jokatu behar ziren lasterketak oraingo asteburuan jokatu dira Madrilgo Jarama zirkuituan, eta Ander Corcuera pilotu arrasatearra han izango da Renault Clio autoarekin.

Joan den astean, txapelketako bere hirugarren lasterketa jokatu behar zuen Ander Corcuera Xerezko zirkuituan, baina konponketa lanak egiten ari zirenez, aurreko aste bukaeran korritu behar ziren bi lasterketak atzeratu egin zituzten. Lasterketa

horiek oraingo asteburuan jokatu dira Madrilgo Jarama zirkuituan, eta Arrasateko pilotuak begi onez hartu du erabaki hori. Xerezko zirkuitua Jaramakoa baino askoz ere urrunago dago, eta horrez gain, Jaramako zirkuituan parte hartu izan du, Anderrek lehen lasterketa han jokatu zuen-eta.

**BI LASTERKETA ASTEBURU BEREAN**

Clio Kopa txapelketan asteburuko lasterketa bakarrik jokatu da, baina oraingo asteburuan pilotuek jardunaldi bikoitza izango dute. Era berean, pilotuek ezin izango dute entrenamendu saio-

rik egin, hortaz, automobilera sartu bezain pronto, lasterketarako denborak neurtuko dizkiete. Zapatuan lasterketa bat jokatu da eta domekan bigarrena. Guztira 40 auto inguru izango dira, eta Ander Corcueraen helburua da lasterketaren baten lehenengo hamarren artean geratzea.

Orain arte bi lasterketan izan da pilotu arrasatearra. Madrilen 21. izan zen, eta Estorilen 13. sartu zen helmugan. Bide horretan jarraituz gero, badirudi hamarren artean sailkatzea posible izan daitekeela, baina fin ibili beharko da.

# Kenci Arrasatek zapatuan jokatu du Eurotaller taldearen kontra

XABIER URZELAI

Arrasateko saskibaloi taldeak Iturripen jokatu du zapatuan, arratsaldeko seietatik aurrera. Etxekoek goiko multzoan egon gura badute, derrigor irabazi beharko diote Eurotaller talde bizkaitarrari.

Azkeneko bi asteetan, Kenci Arrasatek ezin izan du punturik eskuratu, eta etxekoek sailkapeneko goiko multzoan egon gura badute, irabazi egin beharko dute bihar.

Joan den astean, Iker Zubiriaren mutilek UPV Arabaren

kontra jokatu zuten, eta arrasatearrak esku hutsik bueltatu ziren. Hasierako bi laurdenetan parekotasuna izan zen nagusi, eta arrasatearrek defentsan asmatu bazuten ere, arabarrek kanpoko jaurtiketetan trebezia erakutsi zuten. Atsedendira 41 eta 42 erretiratu ziren, baina hirugarren laurdenean gauzak dezentete aldatu ziren.

**JOKO GOGORRA NAGUSI**

Hirugarren laurdenean UPV Arabako jokalariek partidua hautsi zuten, eta hamabi eta hutseko partzial bati esker, arabarrek aurre hartu zuten (58-44).

Minutu horietan joko gogorra izan zen nagusi, eta epaileek ez zuten giroa lasaitzeko erabaki aproposik hartu. Hirugarren laurdena amaitu aurretik, arrasatearrak alde murrizten ahalegin du ziren, eta lortu bazuten ere, laugarren laurdena erabakigarria izan zen.

Arrasatekoek buruarekin baino bihotzarekin jokatu zuten, eta hori gehienetan ez da errentagarria izaten. Arabarrek alde ari eutsi zioten, eta azkeneko 91 eta 76 irabazi zuten. Bihar, zapatua, Kenci Arrasatek etxean jokatu du. Nabari dadila publikoaren berotasuna.

ESKUBALOIA

## Arrasate Almenek 22 eta 21 irabazi zion Arrasateri domekan jokatu derbyan

Eskubaloiko senior mailako talde biek derby ikusgarria bezain gogorra jokatu zuten domeka eguerdian Iturripen. Hasiera batean, Bernardo Balerdiren mutilak ziren faborito, baina gazteek ezustea eman zuten eta 21 gol egin zituzten. Azkenean, nagusiek hosta-hosta irabazi zuten. Bi taldeak etxekoak baziren ere, joko gogorra tartean, argi geratu zen partidua ez zela lagun artekoa izan.

FUTBOLA

## Gazte mailako Arrasatek 8 eta 3 irabazi zion Ondarroako Aurrera taldeari

David Zaitegiren mutilak lan polita egiten ari dira aurten. Joan den asteburuan jokatu partiduan hiru puntuak eskuratu zituzten. Hasierako minutuetan Ondarroako taldeak aurre hartu zuen, baina lehen zatia amaitu zenerako, etxekoak 3 eta 1 ziren aurretik. Bigarren zatian beste zazpi gol ikusi ahal izan ziren. Bost etxeko taldeak eginak eta bi kanpotarrek eginak.

ERRUGBIA

## Arrasateko beteranoek lagun arteko partidua jokatu dute bihar Burdeos

Herensugeak, Arrasateko errugbiko beteranoen taldea, Burdeosera joango da oraingo asteburuan lagun arteko partidua jokatzera. Talde hau 1995. urtean sortu zen, eta ordutik hona hainbat partidua jokatu dituzte Estatuko eta kanpoko taldeen kontra.

Besteak beste, etxekoek Archival, Old Lions, Oporto edo Gallacia moduko taldeen kontra neurtu dituzte indarrak.

FUTBOLA

## Mondrak zapatu arratsaldean jokatu du Atxabalpen Kilimon taldearen kontra

Arrasateko futbol taldeak bihar arratsaldean jokatu du, eta joan den astean 4 eta 2 galdu eta gero, Raul Leibaren mutilek irabazi egin beharko diote Kilimon taldeari.

Etxeko taldearen onena eta txarrena ikusi dugu dagoeneko, eta orain gehien behar dutena erregularitasuna da. Gutxirako balio du 5 eta 0 batek hurrengo asteburuan galdu egiten bada.

SKATE-A

## Arrasateko Skate Taldeak berriro ere eskatu dio Udalari patinetean ibiltzeko gunea

Arrasateko Skate Taldeak hainbat urte daramatza irristatzeko zirkuitu bat eskatzen, eta orain dela gutxi, Aukeako arduradunekin batzartu dira. Horrez gain, herriko alderdi bakoitzari gutuna bidali die, euren eskaerak adierazteko. Euren esanetan, Zaldibar eta Munarren dauden irristatzeko guneak ez dira bat ere aproposak.

### KIROLAGENDA

**FUTBOLA**

**Mondra - Kilimon**  
Erregionala. Zapatua. 15:30. Atxabalpen.  
**Arrasate - Urki**  
Bigarren jubenilak. Zapatua. 10:00. Atxabalpen.  
**Marino - Arrasate**  
Bigarren jubenilak. Zapatua. 16:30. Irunen.  
**Mariaren Bihotza - Arrasate**  
Kadeteak. Domeka. 12:00. Donostian.  
**Eibar - Arrasate**  
Infantilak. Domeka. 16:00. Eibarren.  
**Mutriku - Arrasate**  
Neskak. Domekan. 10:30. Mutrikun.  
**ESKUBALOIA**  
**Arrasate - Arrate**  
Seniorrak. Domekan. 11:30. Iturripen.  
**Loiola - Arrasate Almen**  
Seniorrak. Domeka. 12:00. Donostian.  
**Loiola - Arrasate**  
Gazteak. Domekan. 10:00. Donostian.  
**SASKIBALOIA**  
**Kenci Arrasate - Eurotaller**  
Lehen maila. Zapatua. 18:00. Iturripen.

**ERRUGBIA**

**Arrasate - UPV**  
Gazteak. Zapatua. 16:00.  
**Burdeos - Herensugeak**  
Beteranoak. Zapatua. Burdeos

**PILOTA**

**Santamasetako Txapelketa**  
Osinaga - Errasti. Martitzena. 19:00. Uarkape  
Lazkano - Zuazu. Martitzena. 19:30. Uarkape

**EMAITZAK**

**FUTBOLA**  
Erregionala: Elgoibar - Mondra ..... 4-2  
Neskak: Arrasate - Amaikak Bat ..... 7-1  
**SASKIBALOIA**  
UPV Araba - Kenci Arrasate ..... 91-76  
**ERRUGBIA**  
Arrasate - Getxo ..... 20-11  
**ESKUBALOIA**  
Arrasate Almen - Arrasate ..... 22-21

PILOTA

# Santamas Txapelketan Errastik eta Lazkanok irabazi zituzten martitzeneko partiduak

Lazkanok, sekulako erreakzioari esker, eta Errastik, tantoak ondo bukatuz, Osinaga eta Zuazubiskar mendean hartu zituzten

XABIER URZELAI

**Martitzenean, Santamas Txapelketako partiduak jokatu zituzten senior mailako etxeko pilotariek Uarkapen. Lazkanok Osinagaren aurka neurtu zituen indarrak, eta ondoren, Errasti eta Zuazubiskar aritu ziren nor baino nor.**

Martitzen arratsaldean, Santamas Txapelketako partiduak jokatu zituzten senior mailako pilotariek, eta beste behin, jende gutxi izan zen partiduak ikusten.

Partiduak arratsaldeko zapietan hasi ziren, eta lehenengo norgehiagokan, Osinagak eta Lazkanok neurtu zituzten indarrak. Hasiere-hasieratik, Osinagak nagusitasuna erakutsi zuen, eta Lazkanori asko kostatu zitzaion partiduan sartzea. Hala ere, azken hura berotu zenean, partidua guztiz aldatu zen. Osinaga bederatzita eta bi zen aurretik, eta beste bi tanto soilik egin ahal izan zituen. Lazkanok tantoak bata bestearen segidan egin

zituen, eta azkenean, 18 eta 11 nagusitu zen.

Bigarren partidua Errastik eta Zuazubiskarrek jokatu zuten, eta sakea ondo aprobeztatuta eta tantoak bikain amaituta, Errastik 18 eta 7 irabazi zuen.


Santamas Txapelketako hurrengo partiduak martitzenean jokatuko dituzte. Arratsaldeko zapietatik aurrera, Osinagak Errastiren kontra neurtuko ditu indarrak, eta Lazkanok Zuazubiskar izango du aurrez aurre.

Iker Zugastik, bestalde, nahiz eta lehenengo partidua irabazi, txapelketa alde batera utzi behar du, eskuetan min du-eta. Gogorra ezazue finala Uarkapen izango dela, abenduaren 15ean.

## LAU T'ERDIKO PARTIDUA UARKAPEN

Datorren zapatuan, hilaren 1ean, sekulako pilota jaialdia izango da Uarkape Udal Pilotalekuan.

Lau t'erdiko txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte Unanuek eta Belokik. Abenduaren 5ean, bestalde, DVko finalak jokatuko dira Uarkapen.



Osinaga eta Zuazubiskar joan den astean Uarkapeko pilotalekuan jokatutako partiduan.

XABIER URZELAI

## Zapatuan, Arrasateko atleta infantilak Lasarten izango dira

XABIER URZELAI

**Arrasateko atleta gazteenak Lasarteko krosean izango dira bihar, zapatua. Joan den asteburuan, arrasatearrek Iruneko krosa jokatu zuten, eta Markel Blanco bosgarren sailkatu zen infantil mailan. Maria Jose Gil seigarren izan zen beteranoen mailan.**

Joan den asteburuan, Arrasateko hainbat atletak Iruneko krosean hartu zuten parte. Infantiletan, Markel Blanco izan zen onena, bosgarren izan zen. Markelek zazpi minutu eta hogeita hamahiru segundo behar izan zituen bi mila metro egiteko. Imanol Esperazate 23. izan zen, eta Iñaki Telleria hogeita hamargarrena izan zen zortzi minutu eta hogeita bi segundorekin. Azkenik, Iñaki Etxagibel eta Ander Pérez de Arenaza batera sartu ziren helmugan, 57. eta 58. izan ziren hurrenez hurren.

Guztira 93 mutiko izan ziren proban, hortaz, arrasatearrek lan polita egin zuten, eta aipagarria Markel Blanco gazteak erdietsitako bosgarren postua. Aipagarria, era berean, Maria Jose Gil atleta beteranoak eginiko lana. Arrasatearrek hamar minutu



ARTIBOIA

Atleta gazteak, Iturripen egindako proba baten.

behar izan zituen bi mila metro eta hirurehun metroak egiteko, eta beteranoen mailan, hamar lasterkaririk Maria Jose Gil seigarrena izan zen.

## HURRENGO PROBAK

Arrasate Atletiko Taldeko gazte txoenak Lasarteko krosean izango dira oraingo asteburuan. Fernando Zufiria Arrasate Atletiko Taldeko entrenatzaileak 22 gazte eramango ditu Lasarteko proba-

ra, eta ikusi egin behar du da infantil mailako Arrasateko atletek zer-nolako emaitzak lortzen dituzten. Lasarten, altuera-jauziak eta beste hainbat lasterketa izango dira, hesi-lasterketak, esaterako.

Markel Blanco, bestalde, Lau-dioko krosera joango da, joan den asteburuko bosgarren postu hori hobetzeko asmoz. Ez da lan erraza izango, hainbat eta hainbat gazte izango dira-eta.

## Arrasateko Xake Taldeari puntuak bueltatuko dizkiote

XABIER URZELAI

**Denboraldiko lehen norgehiagokan Gipuzkoako Federazioak taula gainean irabazitako puntu guztiak kendu zizkien Arrasateko xakelari. Orain, ordea, bueltatu egin dizkie, zigorra ez zelako bidezkoa.**

Arrasateko xakelariak txapelketako lider berriak dira, Gipuzkoako Federazioak jarritako zigorra ez delako kontuan hartuko. Astelehenean arratsaldeko zortzietan hasi eta goizaldeko ordu biak arte iraun zuen batzarrean, Gipuzkoako eta Euskadiko federazioek arrazoia eman zioten Arrasateko taldeari, eta denboraldi hasieran kendutako puntuak bueltatu egingo dizkiote.

## LAU ORDUKO BATZARRA

Astelehen arratsaldean, Gipuzkoako eta Euskadiko federazioetako presidentek, Lehiaketa Batzordeko bi kide, Zarautz eta Eibar taldeetako ordezkariak eta Arrasateko Xake Taldeko hiru kide izan ziren batzartuta.

Eztabaida luzea izan bazen ere, bi federazioetako presidentek argi zeukaten etxeko taldeak arrazoia zeukala, baina Eibar-ko eta Zarautz-ko taldeek ez zuten erraztasunik eman, izan ere, bi

talde horiei komeni zitzaien arrasatearrek puntu barik uztea. Hala ere, erabakia Arrasatearren alde hartu zuten, alde batetik, kirol arloan Arrasatek ez zuelako inongo abantailarik izan, eta bestetik, ordeko batekin jokatzeo erabakia ez zutelako fede txarrez hartu.

Denboraldi honetan, arauk diotenez, maila horretan ezin daiteke jokatu izena eman ez duen jokalaririk. Horrenbestez, Arrasateko taldeak bost jokalaririk soilik izango ditu denboraldiari aurre egiteko.

## ARRASATE, LIDER BERRIA

Arrasateko Xake Taldearen helburu nagusia Euskal Ligara igotzea da, eta zigorra jaso eta gero, helburu hori apur bat zaildu egin zen. Orain, ordea, arrasatearrek lider berriak dira 15,5 punturik, eta iskanbila guztia amaituta, etxeko xakelariak ondo jokatzen bakarrik arduratu behar dira, azken asteotan ez dira-eta oso kontzentratuta egon.

Joan den asteburuan, etxekoek galdu egin zuten Tolosaren kontra (2,5-1,5), eta Josu Tornaireren esanetan, nahiko harrigarria izan zen partidu hura galtzea. "Horrelakoak burua beste nonbaiten izaten duzunean gertatzen dira".

ZALDIBARARETOFUTBOLA



EMAITZAK

**A MULTZOA**

Betrayer - Makanaky	5-0
Lasagabaster - Iriztu Tab	3-3
Maldifa's - Usotz Potroak	2-10
Txotx - Bikain akad.	3-4
Goma2 - Chap Dribling	2-2
Estu Ta Larri - Rayo Aldeano	3-4
Fragel Gol - Aurrera Bolie	3-7
Bazar Toki On - Saukelu Scream	1-8

**B MULTZOA**

Irati STS - Etxinañi	10-5
AKTA - Azkena YK	1-15
EGD - Full Duplex	5-3
IKP - Abocajarro	4-3
AT Celaya - KJ Basati	7-3
K. Alpagat - Etxerat	3-5
Bin Laden - AC Surcos	3-3

SAILKAPENA

**A MULTZOA**

	P	J
1. Bikain Akademia	8	4
2. Goma 2	7	4
3. Chap Dribling	7	4
4. Betrayer	6	3
5. Iriztu Tab	6	4
6. Usotz Potroak	5	4
7. Aurrera Bolie	5	4
8. Rayo Aldeano	4	4
9. Saukelu Scream	3	4
10. Lasagabaster	3	4
11. Estu Ta Larri	3	4
12. Makanaki	2	4
13. Maldifa's	2	3
14. Bazar Toki On	1	4
15. Txotx	0	4
16. Fragel Gol	0	4

**B MULTZOA**

	P	J
1. Azkena YK	8	4
2. Etxerat	8	4
3. Irati STS	6	3
4. AT Celaya	6	4
5. DDK	5	3
6. EGD	4	4
7. Komando Alpagat	4	2
8. AC Surcos	3	3
9. Bin Laden	3	3
10. KJ Basati	2	2
11. IKP	2	3
12. AKTA	2	3
13. Full Duplex	1	3
14. Etxinañi	0	3
15. Abocajarro	0	2

PARTIDUAK

**AZAROAK 24, ZAPATUA. EPAILEAK**

- 08:50: AKTA - Abocajarro. Iriztu Taberna
- 10:00: Betrayer - Iriztu tab. Abocajarro
- 11:00: AT Celaya - AC Surcos. Betrayer
- 12:00: Txotx - Rayo Aldeano. AC Surcos
- 13:00: Irati STS - Azkena YK. Txotx
- 14:00: K. Alpagat - Bin Laden. Irati STS
- 15:00: IKP - KJ Basati. Saukelu Scream
- 16:00: DDK - Etxerat. KJ Basati
- 17:00: Maldifa's - Chap Driblin. DDK
- 18:00: Makanaky - Usotz P. Maldifa's
- 19:00: Goma2 - Aurrera Bolie. Makanaky

**AZAROAK 25, DOMEKA**

- 09:50: Bazar Toki On - Fragel Gol. Lasaga
  - 11:00: Lasagabaster - Bikain akad. Bazar T
  - 12:00: Estu Ta Larri - Saukelu S. Bikain aka
  - 13:00: Etxinañi - Full Duplex. Estu Ta Larri
- Atsedena: EGD.

# Arrasateko errugbi taldeak 22 eta 11 irabazi zion zapatuan liderrari

XABIER URZELAI

Arrasateko mutilek garaipen garrantzitsua lortu zuten joan den zapatuan Garagartzako zelaian. Aurrez aurre liderra izan zuten, Getxo taldea, baina arrasatearrak ez ziren kikildu, eta puntuak etxean geratu ziren. Arrasatearrek lau partidutatik hiru irabazi eta bakarra galdu dute.

Zapatu arratsaldean Garagartzako zelaira hurreratu ziren errugbizaleak gustura geratu ziren etxeko taldeak erakutsita-koarekin. Hasiara batetik argi zegoen partidu gogorra izango zela, talde bizkaitarra sailkapene-ko liderra zen-eta.

Partiduko lehenengo minutuetatik bi taldeek oso joko bizia erakutsi zuten, baina etxekoak finago ibili ziren eta aurre hartu zuten. Lehenengo zatia amaitu zenean etxekoak 15 eta 0 ziren aurretik, eta bigarren zatian begira puntuak etxean gera zitezkeela zirudien.

**BIGARREN ZATIAN LARRIAGO**

Bigarren zatian gauzak dezente aldatu ziren, eta arrasatearrek lehenengoko zatian baino izerdi gehiago egin behar izan zuten



Arrasateren eta Getxoren arteko partidu gehienak ikusgarriak izaten dira.

partiduari eusteko. Getxok joko erabat zabaldu zuen, eta horrek asko zaildu zituen etxeko defentsa lanak. Hala ere, etxekoek argi eta garbi zeukaten zein zen egin beharreko lana, eta talde bizkaitarrak bigarren zatian 11 puntu egin bazituen ere, etxekoek beste 5 puntu egin eta partidua aurrera atera zuten. Etxeko taldearen puntuak David Jauregik, bi entseguz, eta Zun-

beltz Aranek, dropez, egin zituzten.

Aipagarria da, bestalde, etxeko taldeko jokalarit gazteenek egindako lana. Beheko taldetik igo berri dira batzuk, eta zapatuan, benetan maila ona erakutsi zuten. Oraingo asteburuan, arrasatearrek atsedean hartuko dute, eta hurrengo asteburuan etxeko jokalaririk Irunera joan beharko dira jokatzera.

# UDALAITZEN aurre hartu dugu

... eta gure automobil guztietan bi urteko bermea eskaintzen dizugu.

MOTORRA

2002ko urtarrilaren lehenetik aurrera, automobil berri guztiek urte biko nahitaezko garantia izango dute

BRUSELA

Europar Batasunaren araudi berriaren arabera, Europa guztian autoen salmentaren bermean aurrerapauso galanta ekarri batez ere, kontsumitzaileak Europar Batasunaren erabaki arau prozedurak etorriko direla auto berriek ezinbestean



**Škoda Fabia Sedan,**

1.841.000 pezetatik aurrera. 11.069, 19 €.



**SEAT Ibiza Stella 1.4,**

autoklimaz hornitua. Orain, Ibizak 10.000 € balio duela jakinda, 1.663.380 pezeta direla gogorarazten dizugu.



**Audi A4 Avant berria.**

Quattro trakzio sistema integralarekin, multitonik martxak eta TDi eta V6 gasolinan motor aurreratuenak.



**Volkswagen Golf,**

Aire egokitua, lagunduriko direkzioa, ABS, lau aire-poltsa, itxiera zentralizatua, kristal jasogailu elektrikoak, eta irratia lau bozgorailurekin. 2.328.000 pezeta. 13.991, 56 €.



Okendo 5  
Tel.: 943 79 09 64  
ARRASATE



Zona16@euskalnet.net

# emakumeok bizi dugun indarkeriaren aurkako

## nazioarteko eguna

# azaroak

# 25

**Azaroaren 23an:**

19:00etan DIAPORAMA izango da,  
Herriko Plazan.

**Azaroaren 25ean:**

18:00retan Sebero Altube plazan  
"Emakumeok bizi dugun indarkeriaren  
aurkako nazioarteko eguna" lelopean izango den  
kontzentrazioan parte hartzera animatzen zaituztegu.



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saria



ARRASATEKO  
EMAKUMEEN  
KONTSEILUA

## ELKARRIZKETA

NUMEN/MUSIKA TALDEA

## “Iraganeko usadioez mintzatzen gara, naturarekiko harremanez”

IKER BARANDIARAN

**N**umen taldea albiste da, diskoa kaleratu du-eta. Badira urte batzuk lanean dabiltzala, eta azkenengo urteetan fruituak jasotzen ei dabilta. Gaur bertan, Arrasateko gaztetxean aurkeztuko dute azken diskoa.

**Zer ibilbide izan du taldeak sortu zenetik gaur arte?**

Hasieran, Jabo, Josu eta Osi ginen. Gero, pixkanaka, Lander, Haritz eta Aimar sartu ziren. Jarraian, Albistur. Horrela urtebete inguru ibili ginen: maketa bat kaleratu, inguruetan kontzertuak egin... Halako baten, Arabak, bateriak, taldea utzi zuen eta haren ordeztu Largo sartu zen. Orditik hona ez da aldaketa handirik izan.

**Hortaz, zeintzuk osatzen duzue Numen une honetan?**

Osik eta Jabok gitarra jotzen dute, Landerrek baxua, Aimarrrek teklatura, Largok bateria, Albisturrek oboea eta Haritz abeslaria da. Une honetan, Albistur atzerrian dago, baina laguntzen jarraitzen du.

**Numen izenak mitologia-rekin zerikusia dauka.**

Bai, hala da, izatez Numenak iraganeko jainko paganoak dira, kristautasunaren aurrekoak, naturarekin lotuta daudenak.

**Zein bilakaera izan du zuen soinuak?**

Hasi ginenean, *death* melodiakoaren antzeko zerbait egiten genuen. Pixkanaka, eta Largo batu ondoren, gehiago gogortu gara. Hedabideetan denetik jarri dute: *black metal* atmosferikoa, folk ukituak dituen *black metal*... Jeneralean, *black metal*.

**Zer-nolako harrera daukazu?**

Gezurra badirudi ere, Estatuan halako musika giroan ezagun samarrak gara. Maketa bakarrik kaleratua izanda, hedabide zenbaitzuetan irten gara... Mexikotik eta Lituaniatik ere gurekin harremanetan jarri dira.

**Disko kontzeptuala da? Hitzek gai nagusi bat jarraitzen dute?**

Ez da disko kontzeptuala, baina badauka ildo nagusi bat. Iraganeko euskal historian oinarritzen da. Gizakiak eta naturak harreman handia zuten sasoiko ohitura eta usadioez mintzatzen gara. Kristautasunak sunsittutako gure iragana. Hitzetan badaude salbuespenak, baina hari nagusia hortik doa. Metaforak ere badaude, baina iragana eta Ama Natura azpimarratuko genituzke. Azken baten, Numen txikiak ekaitza, haizea... dira. Horatik dator *Galdutako itxaropena*



ARTXIBOA

*“Taz, hiru disko kaleratzeko kontratua sinatu genuen Goimusic diskoetxearekin”*

*ren eresia, galdu diren gauza guttien gainean ari da. Musika denon artean egiten dugu, baina hitzak Landerrek egiten ditu.*

**Zelan joan zen diskoaren grabazioa?**

2001eko abuztuan grabatu genuen Shot! estudioetan Inaki Bengoarekin. Lehenengo diskoa izateko gustura gelditu gara. Instrumentu piloa sartu ditugu: ohikoez gain, teklatura, oboea, alba... Hori guztia nahastea zaila da eta gure antzeko musika ezagutzen duten ekoizleen premia dago.

**Zelan lortu zenuten diskoetxea? Beste eskaintzarik jaso zenuten?**

Aurreko urtean, kontratua sinatu genuen Goimusic diskoetxearekin, lau urtean hiru disko

*“Numen txikiak jainko paganoak dira, hau da, ekaitza, haizea... Ama Natura”*

kaleratzeko. Aspalditik ezagutzen dugu elkar eta diskoetxea berria bada ere, gustura gaude eurekin.

**Diskoa asko zabaltzen ari da?**

Momentuz mila ale kaleratu dituzte eta diskoetxe txikien bitartez European zabaltzen ari da, baita Estatuan ere. Horiek salduz gero, gehiago aterako dituzte.

**Numen-eko partaideek beste talde batzuk ere badituzue...**

Hala da. Largok Gurses taldea prestatzen dihardu. Erdi Aroko ukitu askotxo dituen *gothic metal* egiten dute. Jabok ere egitasmo bat dauka, Blaspheron izena duena; *Brutal death* estiloa egiten dute, oso basatia ei da, eta beste lagun batekin dihardu.

## KULTURAPILULAK

### Gabonetako euskal kulturaren azoka prestatzen dabilta herriko zenbait elkarte

AED, Txatxilipurdi, Taila elkarte, Zeramika taldea eta Margo taldea, besteak beste, Gabonetako euskal kulturaren azoka prestatzen dabilta, abenduaren 21 eta 24 bitartean ospatuko den azoka, hain justu. Azoka horretan, liburu eta diskoek gain, herriko artisauek eta artistek lanak ere salgai izango dira, baita herrian sortzen den beste era bateko kultura materiala ere. Dena prestatzeko, batzarrak egiten hasi dira eta deialdia egin diete azokan parte hartzeko interesa duten arrasatearrei: hilaren 28a baino lehenago AEDn izena eman edo 943 771228 telefonora deitu.

### Santa Zezilia, musikarien patroia eguna, ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte

Atzo, eguna, Santa Zezilia Eguna ospatu zen, eta urtero moduan, jai hartu zuten Arrasate Musikalen, euren patroia eguna da eta. Eguena jai izanda, musikarien patroiarekin lotutako ekitaldi nagusienak eguaztenean egin zituzten. Hain zuzen ere, arratsaldeko 18:30etik aurrera, txistulari bandakoek kalejira egin zuten, batez ere, herriko erdialdean barrena. Bestalde, gaur bertan, Arrasate Musikaleko ikasleek kontzertua egingo dute. 18:30ean hasiko da, eta biolin, saxofoi, tronpetak, perkusio, piano eta akordeoi doinuak izango dira nagusi Arrasate Musikalen.



IKER BARANDIARAN

Margo Taldekoak gustura batu ziren erakusketa zela-eta.

## Margo Taldeak erakusgai jarri ditu partaideen lanak

IKER BARANDIARAN

**Urteroko hitzorduari huts egin barik, Arrasateko Margo Taldeak margolarien erakusketa zabaldu zuen joan den egubakoitzean, herritarrek pintore horien urratsak eta duten maila ikus dezaten.**

Harresi aretoa Arrasateko artisten lanez hornitu zuten Arrasateko Margo Taldekoek joan den egubakoitzean. Izan ere, urteroko hitzordu bilakatu da erakusketa hori. Urtero, Margo Taldea osatzen duten artistek erakusgai jartzen dituzte euren lanak, “herritarrek zertan ari garen eta zer maila daukagun jakin dezaten. Garrantzitsua da herritarrei erakustea beste ekintza artistikoak ere badaudela eta, era berean, herritarrek halakoak egitera animatzea”, argitu zigor Arrasateko Margo Taldeko presidente Quevedok.

Hain zuzen ere, “Arrasate bes-

te arrazoi batzuek gain, ekintza artistikoengatik ezagunago egin dadila, aukerak egon badaudeta”, ondorioztatu zuen. “Gainera, erakusketa herritarrek dugun konpromisoa da, Arrasateko Margo Taldeak asko maite du erakusketa hori”.

Azaroaren 16an zabaldu eta abenduaren 2ra arte ikusgai egongo den erakusketa honetara ez dituzte euren lan guztiak eraman, ez lirateke inola ere sartuko. Horregatik, Arrasateko Margo Taldea osatzen duten hogeita partaideetako gehienek lan bana edo bina eraman dituzte, egiten duten lanaren erakusle edo adierazgarri: olioak, akuarelak eta pastelak, besteak beste.

Motiboei dagokienez, batez ere, natura hilak, paisaiak, loreak eta erretratuak aukeratu dituzte Arrasateko Margo Taldekoek lanak egiteko orduan. Hain zuzen ere, 30 urtetik 70 urte arteko hamazortzi bat artistak parte hartu dute aurtengo aurkezpenarean.

E, TXO!

**HAINBAT EKINTZA GERTU  
ARRASATEKO GAZTETXEAN**

Gazte Asanbladakoek lanean fin jarraitzen dute. Joan den asteburuan, Iparraldeko Ozke taldea izan zuten taula gainean, eta datorren egunetarako zenbait eskaintza dituzte: batetik, zapatuan, Oiartzungo Kum eta Zarauzko Erasok metal berriko doinuak eskainiko dituzte, eta Fly Shit bergararrak *hardcorea*. Eguenean, berriz, Leioako Unibertsitatetik kanporatutako irakasle batek egun bizi duten egoerari buruz berba egingo du 19:00etan, eta egubakoitzean, ESAITen inguruko hitzaldia egingo dute.

**TXIKILANDIAN BEGIRALE LAN  
EGITEKO AUKERA**

Txatxilipurdi euskara eta aisialdi elkarteak deialdia egin die herriko gazteei, Gabonetan Musakolako kiroldegian ospatuko den Txikilandia haur parke erraldoian begirale moduan lan egiteko. Hain zuzen ere, puzgarri zein taillerretan umeeekin jolas egin, txartelak saldu, igerilekuan jolasak egin edo beste eginkizun batzuetarako. Interesatuta bazaude, eman izena lehenbailehen Txatxilipurdi bertan edo deitu 943795446 telefonora azaroaren 30a baino lehen.

**LUDOTEKAKO BAZKIDE  
IZATEKO EPEA ZABALIK**

Txatxilipurdik Santa Marinako eta erdialdeko ludoteketan bazkide egiteko epea zabaldu du. Epea azaroaren 30ean itxiko dute eta izenematea bi ludoteka horietan egin ahal izango duzue. Informazio gehiago gura izanez gero, jo bi ludoteka horietakoren batera eta galdetu gura duzuna.

**GAZTEKONTUAK / SKATEAREN PREMIAK**

**'Skate'a, gurpil gainean  
ibiltzearen zirrarra  
baino zerbait gehiago**

IKER BARANDIARAN

Aspaldiko *sancheski* eta antzekoak alde batera utzi eta badira urte asko herriko gazteek benetako patinekin trebezia hartu dutela. Horra hor, esaterako, Arrasateko Skate talde fina.

Gazte askok aisialdia ordenagailuan ibiltzen eta Playstation-ekin jolasten igarotzen badute ere, beti egon dira beste eratako zaletasunak ere, eta horien artean, duela urte dezente bereganatzen hasi ginen *skate* edo patinen zaletasuna.

Irristatzen ibiltzen direnek diotenez, oinarrizko *skate* baten batez besteko salneurria 24.000 pezeta da, baina Arrasaten hala-

*"Hamabi urte  
daramatzagu  
Udalari irristatzeko  
zirkuitu bat  
eskatzen"*

koak erosteko oso leku gutxi dago. Eta are larriagoa ei da irristatzeko leku aproposik ez edukitzea.

**ZIRKUITU BATEN PREMIA**

"Arrasateko Skate Taldekook hamabi urte daramatzagu Udalari irristatzeko zirkuitu bat eskatzen. Munarren eta Zaldibarren



Arrasateko skatelariak maila polita hartu dute urteak igaro ahala.

zerbait jarri zuten, baina horiek eskasak dira eta, gainera, oso gaizki zainduta daude. Aukea-

koekin harremanetan gaude, eta duela gutxi alderdiei gutun bana bidali diegu".

**LOTSABARIK / Maitane Muñoz**

**"Lagunen maitasuna garrantzitsuena da"**

IKER BARANDIARAN

Maitane aspaldiko ezaguna da gure artean. Izan ere, hiru urtean Arrasate Irratiko kolaboratzaile izan zen, eta urte batzuk daramatza ARRASATE PRESSko banatzaile moduan. Neska fina, hortaz.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Abeslaria. Musika gustuko izan dut beti, eta txikitan, etxean, dutxan kantatzeko ohitura neukan. Abesbatzen topaketan ibilia naiz.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera? Ikasketak bukatuta eta kaze-

tari lanean. Gurago nuke irratia edo telebistan lan egitea, batez ere irratian, kutsu ezezagunagoa edo misteriotsuagoa duela.

• Zein da, zure ustetan, adin ideala?

Hogeita bost urte. Heldutasun puntua daukazu eta oraindik gazte samarra zara.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehenetasuna?

Lagunen maitasunari.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Jende askoren artean lotsagarri geratzeak.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Munduan dagoen txirotasun larriak.

• Zer falta zaio Arrasateri gazteendako?

Gazteendako leku gehiago, tabernen alternatibak adibidez Gaztetxea, baita, ekintza kulturalak ere.

• Zer egingo zenuke milioi bat pezetarekin?

Batez ere, bidaiatu. Tailandiarara joko nuke, beste kultura batzuk ezagutzearren.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Edozein.

• Arrasaten erraz ligatzen da?

Ez. Oso itxiak gara.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Begiei, zalantza barik. Pertsonak duen deigarriena da.



ADINA: 17 urte • IKASKETAK: Batxilergoko lehenengo maila • ZALETASUNAK: Irakurtzea eta poesiak idaztea.  
LIBURU BAT: Ana Franken egunerokoa • FILM BAT: Todo sobre mi madre • MUSIKA TALDEA: Txapel punk • KIROL TALDEA: Erreala.

**CLUB  
IYOLA**

Elgetara bidea  
BERGARA  
943 76 11 29

**ASESORIA  
ARRASATE**

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE  
Tel.: 943 79 01 47 Faxe: 943 79 73 00

*Lore*

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10  
Tel.: 943 79 52 50

BEHEKODENDATIK

# Luis Chimeno Ríos

**ALDEDI DENDAKUE**

XABIER URZELAI

Zamoran jaixo bazan be, Madrillen bizi izen da urte askuen, eta gaztetan Real Madrilleko jokalaria izen zan. Lesio bategatik itxi euen futbola, baiñe oso futbolzalie da. Ostalaritza ikasitakue, Mondragoera etorri zan bizi izetera, eta Cartonajes Esman ibilli zan urtietan. Zazpi hillebete daroie Aldedin lanien.

**Amets bat?**

Santiago Bernabeun barriro be partidu bat jokaketie.

**Amets txar bat?**

Familixakoren bat gaixoketie. Egin dozun azken biajie? Madrillera.

**Txartel horixe, zeñei?**

Intolerantiei.

**Eta gorrixer?**

Hori be eurei.

**Pelikula bat? Liburu bat?**

**Disko bat?**

*Carros de fuego* / Jose Ramon de la Morenaren bat / Whitney Houston gustetan jat.

**Drogak legalizauko zittukie?**

Bai.

**Eta prostituziñue?**

Aztertu egin biherko litzake, baiñe ez dot uste.

**Tabernetako txikitue ala diskotekak?**

Ez bata eta ez bestie.

**Ze gustetan jatzu Mondragoetik?**

Dana, eta batez be, hamengo mendixek. Madrillen bizi izen nazez, asko baloretan dot hau. Barriro be hara juengo banitz, asko kostauko litzakit ohiketie. Gaiñera, oso herri garbixe da Mondragoe.

**Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?**

Gehixenbat kirola. Pentsetan dot gaztieku leku gehixago biher dauela kirola egitteko.

**Eta lehendakari izengo bazitze?**

Ahalegindduko nitzake herri polit honi falta jakon gauza bakarra lortzen: pakie.

**ARRASATE PRESS barrixe gustau jatzu?**

Bai, eta asko, gaiñera. Aldiz-



*“Hamengo mendixek asko gustetan jat, Madrillera juengo banitz, horrein faltie igerriko neuke”*

karixe baiño hobeto dago.

**Bizio bat?**

Futbolien jokaketie.

**Ezagutu dozun pertsona interesante bat?**

Real Madrilleko jokalaria izendako Juanito. Tamalez, auto istripuen hil zan.

**Eta ezagutu nahiko zeunkiena?**

Maradona.

**Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?**

*Operación triunfo* gustau jat, aukerie emuten dutzie jende normalari. Irratixen, *El Larguero*.

**Zertan gastauko zeunke dirue?**

Etxe barri baten.

*“Ahalegindduko nitzake herri polit honi falta jakon gauza bakarra lortzen: pakie”*

**Ze saltzen da gehixen denda honetan?**

Giltzak eta sarraillak.

**Mondragoetarrak abillek gare gauzak konponketan?**

Bai, nahiko abillek.

**Ferretero ona izeteko, lehenengo fabrikan lan egin biher da, ala?**

Neurri baten bai. Horrekin batera, kuriosue izen eta jentiekien tratuen egitten jakin biher da.

**Ze egingo zeunke gustora etxerako?**

Talletie gustetan jat, eta irudiren bat edo...

**“Errementarixaren etxien zotza burrunzi”...**

Eta seguru, gaiñera.

**NIREBIDAIAHURA/ Iban Silbar**

Perura / 2001eko uztailaren 24an

Iban Silbarrek 26 urte ditu eta irakaslea da, eta joan den udan Perun izan zen. Arrasatear hau Arrasateko Triatloi taldeko kide dela esaten badugu, eta bidaia horretan Jon Aperribairekin batera izan dela gaineratzen badugu, argi geratzen da ez direla Perura joan turismoa egitera. Eurekin Manu Rodríguez izan da, eta hirukote honek Peru aldeko hainbat mendi tontor egin ditu.

Ibanek argi dauka han bizi izandakoa sekulako esperientzia izan dela, baina horrez gain, mendiaren inguruan gauza asko ikasteko aukera izan dute: “Pirinioetan eta Alpeetan aritzean, gauzak azkar egitera ohitzen zara, eta beste nonbaitera joatean, gauzak lasaiago egin behar direla ikasten da”.

Hirukote honek Ishinca ibarrera egin zuen lehen irteera. Hantxe hiru tontor egiteko asmoa zeukaten, eta Piscoko gaina egin eta gero, Toclarraju-n atzera egin behar izan zuten, eguraldia ez zutelako lagun izan: “Gauzak azkarregi egin genituen, eta egunean bertan guztia jaso eta handik alde egin genuen. Gero jakin genuenez, hurrengo egunean sekulako eguraldia egin zuen, eta han gelditu zirenek ez zuten inongo arazorik izan tontorra egiteko”.

Mendian egun batzuk igaro eta gero, Huasaras herrira jaitsi ziren, egun batzuetan gutxienez ondo jan eta deskantsatzera: “Hantxe geundela behin baino gehiagotan aipatu genuen Kubako hondartza baten hobeto izango ginela, baina nahikoa deskantsatu ostean berriro ere irrikan geunden goiko mendietara igotzeko”. Ibanek argi dauka bidaia hau berriro egingo duela, eta hurrengoan, gauzak lasaiago hartuko ditu. “Mendira beste txip batekin joateaz gain, Peru herri moduan hobeto ezagutzen saiatuko naiz”



*“Mendian azkarregi ibili ginen; hori, behintzat, ikasi dugu”*

*“Hirurok zelan moldatu garen oso garrantzitsua izan da”*

XABIER URZELAI



Ishinca mendian bertan egindako lagun batzuekin.

**Rafa Sarrailagintza**

**Rafa Opariak**

- Zorrozketak
- Aiztogintza
- Oinetako eta aterkien konponketa

**Rafa Sarrailagintza**

**Rafa Opariak**

Tel. eta faxa: 943 79 76 03  
Eroski merkatal zentrua 1 eta 3.  
ARRASATE

**Eta orain... opariak zure eskura gure denda berrian!!!**

**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32



## ZAHARREN ETXETIK



ARTXIBOA

Gertu zein urrun joan, oso gustukoa da herritik irten eta beste inguru batzuk bisitatzea.

# Hirugarren adineko txangoak: kultura eta gastronomia uztartuta

IKER BARANDIARAN

**T**ristea da askoren ustez zahartzaroa, eta egia izango da alde txarrak ere izango dituela, baina zein adinek ez dauka alde txarririk?

Bizitzan nahikoa baino gehiago lan egin eta gero, erretiratzeko aisialdirako denbora dezente eduki ohi da, eta hori bai, oso garrantzitsua da aisialdi horri benetako probetxua ateratzea. Hori batek baino gehiagok daki, eta erretiratuek, zer esanik ez!

Aisialdia antolatzeko dauden mila moduen artean, oporretan joateko parada hartzen dute askok eta askok: ohiko topiko guztiekin askok (eguzkiaren eta hondartzaren bila) eta beste helburu jakin batzuekin (kulturalak, historikoak, gastronomikoak...) gainerakoak. Horra hor, esaterako, erretiratuekin hain lotuta dagoen Benidorm bera edo Kanariar Uharteak ere.

### EGUNEKO TXANGOAK

Hala ere, erretiratu guztiak ez dira oporretan urrun joaten eta

iraupen laburragoko txangoak egitea gurago izaten dute. Horretarako, izugarritzko mesedea egiten diete hainbat elkarte antolatutako eguneko txangoek. Txango horiek izaten duten harrera ona ikustea besterik ez dago.

Arrasateren kasuan, beste

## Egun bateko txango plana

**Goizean jaiki eta autobusera igo baino lehenago, hamarretakoak egiteko ogitartekoak prestatzen dituzte Abaroan. Gero, autobusera igo eta ibilbideko lehenengo geltokian prestatutakoa jan egiten dute. Ibilbide historikoa egiten dute, eta gero, bazkaltzera joaten dira, eguneko unerik gozoenetako bat, zalantza barik. Ibilbidea bukatu, eta etxera!**

herri askotan moduan, zaharren egoitzetako batzarrak dira hala-ko txangoak antolatzeaz arduratzen direnak. Abaroa, Toki Argi, Uribarri baita Musakolakoa ere. Urtean zazpi edo zortzi irteera antolatzen dituzte, eta betiere, gutxienez bi autobus inguru betetzea lortzen dute.

Irteera horietako ohiko leku bat Donostia bada ere, Errioxak ere badu bere pisua, baita Nafarroak eta Burgosko inguruek ere. Azken baten, goizean irten eta iluntzean bueltatzeko aukera ematen duten lekuak.

Antolatzailleek, norakoak erabakitzeke unean, ibilbidean bisitaldi kulturalak egiteko aukera oso kontuan izaten dute. Askotan elizak eta gazteluak ikusten dituzte, baina baita hirigune historikoak ere. Azkenaldian, gainera, ibilbidean azokarik ote dagoen edo ez kontuan izaten dute, halakoetan erosketak egitea oso gustuko dute-eta.

Horrez gain, zaharren egoitzetakoek upelategi eta jantoki onenak aurkitzeko sudur ezin hobeak dutela esan ohi da.

## LABUR

### Martitzenean omenduko dituzte Abaroan 90 urte baino gehiago dituzten bazkideak

Urtero moduan, martitzenean, azaroaren 27an, 90 urte baino gehiago dituzten bazkideak omenduko ditu Abaroako batzarrak egoitzan bertan. Hain zuzen ere, 50 bat atso eta agurek opari bana jasoko dute egun horretan, eta ezagun da hauetako asko oparia jasotzera joan ezin badira, euren senideak zahar egoitzatik pasatuko direla dagozkien otarrak jasotzera. Zorionak guztiei!!

### Gimnasia ikastaroak astelehen, martitzen eta egunen izaten dira Saioa gimnasioan

Abaroako zaharren egoitzan astelehen, martitzen eta eguenero egiten dituzte gimnasia ikastaroak. Lehenago egoitzan bertan egiten bazituzten ere, gerora, Saioa gimnasia pasatu ziren, egoitza bera baino leku aproposagoa eta zabalagoa da-eta. Hainbat txandatan, guztira 50 bat lagunek parte hartzen dute ikastaroetan.

### Aspaldian, dantza gogoa ez da inoiz falta izan erdialdeko zaharren egoitzako lokaletan

Abaroako zaharren egoitzan dantza gogoa ez da inoiz falta izan, hala dirudi, behintzat, Natalio Maiztegi oñatiarrak ematen dituen ikastaroek duten harrera ona ikusita. Egoitzan bertan ematen dituen eskolak eguenero. Eta astero dantza motak tartekatzen dituzte. Karibe giroko dantzez gain, klasikoagoak diren beste batzuk ere ikasten dabilta; pasodoblea, adibidez. 30 bat lagunek dihardute.

## ZAHARREN AHOTIK

### Jesus Elkoro

ERRETIRATUA


**Jesus Elkoro oso ezaguna da Arrasaten, batez ere, berak eta anaiak Arrasaten dauden Elkoro denden hazia erein zutelako.**

### Zaldispe baserrian jaio zinen, ezta?

Bai. 1913ko urtarrilean jaio nintzen, Zaldispe baserrian. Lau anai-arreba ginen, bi mutil, gerora batera lan egin genuenak, eta bi arreba, moja joan zirenak. Nire familia maizterra zen eta jabeak Cerrajerari saldu zion baserria guri ia ezer esan barik. Gero, orain Maalako biribila dagoen etxe baten bizi izan ginen.

### Tailerra gaztetan zabaldu zenuten?

40ko hamarkada erdialdean-edo. 1930etik 1945era Cerrajeran elektrikari ibili nintzen,



hasieran debalde eta gero ordainduta. *Mangantetzat* gintuzten, baina askotxo ikasi nuen. Gerora, anaiak eta biok lokal bat eskuratu eta hementxo tailer eta negozio gehien instalazio elektrikoa martxan jarri genuen, eta horretarako, Donostiara bidaia ugari egin genituen.

**Hilbera kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 22 70

**LAKET**

Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72

**KONTRATAK IRVROK S.L. ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14  
ARRASATE

**ION LEHIOAK**

Leihoak  
Ateak  
Horma armairuak  
Zoruak

Kanpantorrea, 2  
Tel./faxa: 943 79 11 35  
20500 ARRASATE



ARRASATE  
**Josu Azkarate**  
Azaroaren 14an 5 urte.  
Zorionak, Aitorren partetik!



ARRASATE  
**Ane Errarte**  
Azaroaren 23an 6 urte.  
Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



ARAMAIO  
**Peru Abarrategi**  
Azaroaren 22an 4 urte.  
Zorionak eta urte askotarako! Mikel eta Beñat.



ARRASATE  
**Julen Aranguren**  
Azaroaren 24an 28 urte.  
Zorionak eta urte askotarako! Zure lankideak.



ARRASATE  
**Aitziber Agirre**  
Azaroaren 26an 22 urte.  
Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



ARRASATE  
**Julen Barrutia**  
Azaroaren 23an 8 urte.  
Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



ARRASATE  
**Isabel Garcia**  
Azaroaren 21ean 54 urte.  
Zorionak eta urte askotarako! Zure familia.



ARRASATE  
**Isabel Caballero**  
Azaroaren 27an 5 urte.  
Umezaintzako laguntxoentz partetik, zorionak!!!



ARRASATE  
**Iñaki Ormaetxea**  
Azaroaren 29an 5 urte.  
Umezaintzako laguntxoentz partetik, zorionak!!!

## BABESLEA

*Juan Manuel Berrueta*

ARGAZKILARIA



- Estudioa
- Erreportaiak
- Bideoa
- Argazkizaleen txokoa

Iturriotz kalea, 24. ARRASATE. Tel.: 943 79 19 71 / 658 75 58 18.

## Adi!

Hurrengo zenbakian, **azaroaren 24tik abenduaren 5era** bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu.

**Argazkiak martitzera arte jasoko dira ARRASATE PRESSEko egoitzan.**

## Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera argazki batekin eta utzi gure esku!

Otalora lizentziaduna, 31.

## Euskadiko Kutxa

Nikon kamera bat sukurtsalera ez joateagatik.




**NIKON AF 230** • Fokatze automatikoa • Objektibo angeluhandia • Pelikularen aurrerapen automatikoa • Flash automatikoa barne • Begi gorriak murrizteko gailua

08000517 / 10-01

Aldatzen ari da gure finantza-entitatearekin harremanak izateko modua. Dagoeneko ez dago sukurtsalera joan beharrik ohiko gestioak egiteko. Telefonoz edo internet bidez konpontzen dira. Eragiketaren bat egiteko premia duzun bakoitzean, deitu 901 333 444 telefonora, edo konektatu [www.cajalaboral.com](http://www.cajalaboral.com) helbidearekin. Irabazten aterako zara, zeren eta urriaren 1etik abenduaren 31ra bitartean Telebanka eta Caja Laboral Net erabiltzen duten bezeroen artean, **HILERO 50 NIKON ZOZKATUKO BAITITUGU.**

901 333 444  
[www.cajalaboral.es](http://www.cajalaboral.es)

  
**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

Zurekin  
elkarlanean

# Txirritola

ARAMAIO / Egubakoitza / 2001eko azaroaren 23a / 5. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna, z/g 2500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

## Bi urtetik beherako umeeak eta haien gurasoek badute non egon

UBANE MADERA

Bi urtetik beherako umeendako lekua uztea erabaki du Udalak. Liburutegi ondoko bi gela utziko dizkie. Betiere, kultura ekintzarik ez dagoenean. Izan ere, herriko zenbait gurasok eskatu zioten bi urtetik beherako umeeak ere aukera izatea kultura etxera sartu ahal izateko.

Joan den urriaren 3an, herriko zenbait gurasok idatzi bat bidali zioten alkateari, berrogeita hamaika herritarren sinadurekin batera. Modu horretan eskatu zioten negu aldean ume txikiekin (hiru urtetik beherakoekin) kultura etxeko aretoren baten egotako aukera izatea. Izan ere, eguraldi txarra egiten duenean, guraso askok ez dute non egon, ludotekara ezin da-eta sartu hiru

urtetik beherako umerik.

Udalak gaia aztertu du eta alkatearen bitartez, oraingo astean erantzuna bidali die, esanez, "kultura etxean lehenetsun osoa ekintza kulturalari emango zaie, ondorioz, bigarren solairuko gela handi biak (liburutegiaren ondokoak) erabili ahal izango dituztela" ume txikiekin han egoteko, hain justu, kultura taldeendako edo ekintza kulturalak egiteko diren gela biak. Betiere, gela horietan kultura ekintzarik ez dagoenean eta baldintza jakin batzuk betetz gero.

### BALDINTZAK

Gela erabiltzea gura duen lehenak giltza eskatu beharko dio kultura etxeko arduradunari, eta azken erabiltzaileak gela itxi beharko du eta giltza arduradunari bueltatu. Hori bai, kultura etxe barrura ezin izango da ume gurditxorik sartu eta ume txikiendako gelak ezin izango dira erabili liburutegi orduetatik kanpo; hortaz, 17:00etatik 19:30ak arte izango da zabalik.

Ludoteka berria kultura etxeko lehenengo solairuan dago orain. Hiru urtetik gorako umeendako da, eta lagun barik joaten dira. Urrian zabaldu zuten ludoteka berria kultura etxean.



Ludoteka ezin izango dute erabili, baina bai liburutegi ondoko gela handi biak.



## Ogia, 'Goienkaria' eta TXIRRITOLA

Oraingo astetik aurrera, *Goienkaria*, eta ondorioz, TXIRRITOLA, ogiarekin batera banatuko dute auzoetan. Helburua da aldizkaria herriko etxe eta baserri guztietara iristea, eta Postetxera jo zuten horretarako. Baina postaz aldizkaria ez da garaiz helzen. Hortaz, erabaki dute, oraingoz, behintzat, ogia banatzen duenak eramango duela *Goienkaria* zapatu goizean. Joseba da ogi banatzailea, hortaz, hemendik aurrera ogiarekin batera eskatu aldizkaria. Ibarren betiko banaketarekin jarraituko dute eta Oletan postaz banatzen segituko dute. /UBANE MADERA

## HERRITARREN HITZA / Rosa Mondragón • Kazetaria

### Erosi, erosi, Gabonak hemen dira eta!

Gabonak heldu dira, ala? Egutegia begiratu dut eta, "ez, azaro erdialdean gaudede oraindik", pentsatu dut. Baina, berriro ere... nola liteke? Egu-berria zoriontzeko postala jaso dut, hipermerkatuan turroia, mazapanak besterik ez ditut ikusi, denda batzuetan Gabonetako apaingarriak ipinita daude hiri handietan Papa Noel eta Olen-tzeroren irudiak jarri dituztela esan didate, telebistan ere hasi dira jostailuen kanpainarekin... konfunditurik ote nago?

Ez. Horixe da errealitatea, eta niri bezala, seguru zuetariko askori ere berdina gertatu zaizuela. Badirudi Gabonak

urtetik urtera aurreratu egiten direla. Baina egutegian abenduaren 24an hasten dira, ezta? Gure inguruan, baina, gutxienez, hilabete lehenago hasten da Gabonetako kanpaina berezia. Ez dut gehiegi ulertzen. Beno, alde batetik bai, kontsumismo aldetik ulertzen dut, dendari askok urteko irabazirik handiena data hauetan lortzen baitute, eta ez da harrizkoa! Ni ez naiz salbuespena, eta



"Hilabete lehenago hasten da Gabonetako kanpaina"

gutxiago edo gehiago, ni ere harrapatu nau kanpaina honek. Beste batzuek bezala, hasia naiz pentsatzen Olen-tzerotan zein opari erosiko dudun, Gabonetako jaiak nola pasatuko ditugun... Eta are gehiago, Gabonen ostan iritsiko diren beharpenetan zer erosi behar dudun Zoratuta gaude!

Erostea plazerra da! Horixe entzun diot orain dela gutxi psikologo bati eta gorabehera batzuekin, guztioi gustatzen

zaigula erosketak egitea baieztatu zuen. Eta erosketen artean, badirudi ez gaituela hainbeste erakartzen eguneroko gauzak erostea, baina bai hipermerkatu handietan eta bestelako dendetan egiten direnak. Egia dirudi, jende askok esaten baitu egun txarra duenean edo deprimituta sentitzen denean, erosketak egiten iristen dela eta horrela nolabaiteko poztasuna lortzen duela, nahiz eta, beharbada, txartelaren erdianagiria heltzen zaionean berriz deprimitu.

Erosi, erosi! Eta gero, urtarrila iristen denean, krisia dagoela esango dute. Ez du, ba, antzik!

## LABUR

### 195 lagunek hartu dute gripearen kontrako txertoa

Bukatu da aurtengo gripearen kontrako kanpaina. Hain justu, aurtun, 195 lagunek hartu dute txertoa. Horietatik ehun eta hirurogeita hamabi 65 urtetik gorakoak izan dira (%78'18), eta gainerakoak, hogeita hiru, 65 urtetik beherakoak (%10'45).

Irailaren 17tik urriaren 31ra artekoa izan da gripearen kontrako kanpaina. Beti-ko moduan, 65 urtetik gorakoendako eta 65 urtetik behera gaixotasun kronikoren bat dutenendako dago zuzenduta.

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIK**

Anbulatorioa (txanda) .....	943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa .....	943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa .....	943 76 62 46
Ertzaintza .....	943 76 53 40
Osasun Etxea .....	943 76 24 40
Asepeyo .....	943 76 16 43
Pakea .....	943 76 13 49
Angiozarko medikua .....	943 78 90 27
Antzuolako medikua .....	943 76 62 23
Odol emaleak .....	943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak .....	943 76 51 06

**AUTOBUSORDUTEGIA**

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

**LABUR**

**BERTSO AFARIA**

Auzoko jaiak amaitzeko, Gantzagako auzokideek afaria egingo dute gaur, egubakoitza, Iturrietan. Imanol Lazkano bertsolaria izango da giroa berotzen. Gainerako herritarrek gonbidatuta daude kafea hartzera eta dantza egitera.

**OSOKO BILKURA**

Azaroari dagokion osoko bilkura datorren eguaztenean izango da. 18:00etatik aurrera Udaletxeko areto nagusian.

**MENDI IRTEERA**

Domekarako mendi irteera antolatuta du Orixolek. Goizean goiz irten eta Tolosako Izaskun auzora joango dira, Uzturre mendira igotzeko. Gero, Berastegira joango dira eta han baba-jana egingo dute.

**SARI BANAKETA**

Gaur, egubakoitza, Aramaioko II. Argazki Rallyaren sariak emango dituzte. Ekitaldia 20:00etan izango da, kultura etxean. Gero, lehiaketan parte hartu duten argazkien proiektzioa egingo dute.

**KULTURA**

**Eguraldiak lagunduta, giro polita izan da aurtengo San Melixenetan**

Gantzagako auzokideak pozik daude aurtengo jaietan izandako giroarekin. Eguraldia lagun izan zuten, eta auzotar eta herritar dezente animatu zen. Jaietako ekitaldien artean, Gantzagako XXI. Txirrindulari Igoera izan zen; aurtent, Aretxabaletara joan da lehenengo saria, Oier Garroren eskutara, hain justu. Gazteen artean, berriz, Zaldibarko Martxel izan zen aurrena. Auzoko txirrindularien artean, berriz, Unai Larrañagak irabazi zuen, eta gazteen artean, Aitor Azkarragaurizarrek. Bestalde, mus eta tute txapelketak ere izan ziren. Musean, Etxaguengo Migel Bergaretxe eta Jon Astola gailendu ziren (Etxaguenean Gantzagakoek irabazi zuten, eta orain, Gantzagan Etxaguenekoek). Tutean, Beeti baserriko Larrañaga anaiek irabazi zuten.



**HERRIKO JOKOAK**

**POTTO-POTTOKA EDO POTXOLOKA**

Jende askok parte hartzen zuen. Kanpoan, landaren baten-edo, jolasten zen. Zulotxo bat egiten zen, *potxolue*. Jolasteko, beharrezkoak ziren bost edo sei intxaur, batzuetan alberretxikuhezur, intxaur txiki eta hurrak erabiltzen zituzten. Bi edo hiru metrotik botatzen zen potxolora. Sartzen zuenarendako izaten zen txanda horretan jokaturakoa.

Udaberriko jolasa zen. Eskola-umeak aritzen ziren, baina Oletan esan zigutenez, gerra aurretik ez zen harrizkoa zahar-ragoak ere horretan topatzea.

**ALARREA**

Domeka arratsaldeko jokoak genuen hau, mutiko nahiz nagusien entretenigarri. Lau edo sei lagun hormaren kontra ipini, lau txanpon bota eta beste bat aire-ra horma joz. Txanponaren alde aurpegia irteten bazen, dirua jaso; bestela, besteak bota, eta horrela, aurpegia irteten zen arte. Izen hau Etxaguenean ematen zitzaion.

*Aramaioko joko eta jolasak*

**BOTEPRONTOAN/ Rosi Kortabarria · Itur Zuri elkarteko presidentea**

*“Herriko emakumeei esango nieke egin gura dutena esateko eta guk ahaleginak egingo ditugula egiteko”*

**A**ramaion badago emakumeen elkarte bat. Itur Zuri du urte jaiotzen. Talde bakarra zen hasieran, eta orain, 100 bazkide pasatxo ditu. Hala kontatu digu Rosi Kortabarria, Itur Zuri elkarteko sortzaile eta oraingo presidentea.

**Zelan sortu zen?**

Kultura zinegotzi nintzen. Eta bazegoen eskulanak egiteko elkartzeko emakume talde bat. Baina desagertzeko arriskuan zegoen, dirurik ez zuelako. Orduan, proposatu nien talde moduan ofizialki eratzea erakundeetako dirulaguntzak lortzeko. Hasieran, beldurtu egin ziren, baina esan nien lagundu egingo niela. Horrelaxe sortu zen Itur Zuri.

**Ehun bazkide baino gehiago. Ez da asko?**

Lehen, eskulanak egiten zituen talde bakarra zegoen; baina gero, segituan eskatu zuten sasoiaren egiteko gimnasia egiteko taldea; eta gero, aerobic taldea sortu zen. Izan ere, jende pilo Arrasatera joaten zen aerobic egitera, eta hemen egin gura zuten. Horrelaxe sortu zen hirugarren taldea. Gure araua da gure ekintzetan parte hartzen duten guztiak izan behar direla bazkide. Eta gaur egun, eskulanetan bi talde daude, aerobiceko beste bi eta sasoiaren egiteko gimnasiako bat. Horrez gain, bestelako ikastaroak ere egiten ditugu: igeriketa, autodefentsa... **Baina bestelakorik ere egiten**



**duzue?**

Bai, margo lehiaketa galtzear zegoen eta orain dela lau urte berriro antolatzen hasi ginen, berrindartzeko. Bestela, Inauterietan, Gabonetan, jaietan... parte hartzen dugu eta Emakumearen Aste Kulturala eta bidaiak ere antolatzen ditugu.

**Gizonezkoek ere parte har dezakete ikastaroetan?**

Bai, jakina, eta bat edo beste ibili izan da.

**Zer eskatuko zenieke herriko emakumeei?**

Esan dezatela zer gustatuko litzaiekeen egitea. Batez ere, baserrian bizi diren emakumeek. Esandako dena aztertuko dugu eta egin ahal direnak egingo ditugu, ahalik eta erraztasun guztiarekin.

**AGR**  
Garraioa Ripa  
**ERREFORMAK S.L.**

**Metal aroztegia eta PVC**

Leihoak eta itxierak  
**Egur aroztegia**

Leihoak  
Ateak  
Armairu enpotratuak  
Armairu-fronteak  
Mota guztietako zoruak  
Lixatua eta bernizatua

**Osagarriak**

Neurrira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahai eta aulkiak

**Erakusketa eta biltegia:**  
Kale txiki, 3 behe (Musakola)  
Tel eta faxa: 943 77 11 20

**MADINA ZURAK**  
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiako osagarriak

Zarugalde, 38 • Tel.: 943 79 13 78

**HIES BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

**AL**

**ILE APAINDEGIA**

Alfonso X jakintsua, 1 behea  
(Grupo San Juan)  
Tel.: 943 79 79 65

## ERRETRATUZHARRA

On Jose  
Mariaren  
lehenengo meza

**D**atorren egunean, hilaren 29an, On Jose Maria Arizmendiarieta hil zela 25 urte beteko dira. Mondragoetatik hainbeste egin zuen gizona izanda, argazki zaharraren atalean hura gogoratzea pentsatu dugu. Eta Mondragoera abade moduan etorri zenez, bere abade izaera ekarri dugu gogora.

Ikusten duzuen argazkia On Jose Maria Arizmendiarietak lehenengo meza eman zueneko da. 1939ko Urte Berri egunean dago aterata, urtarrilaren 1ean, hortaz. Barinaga auzoan dago On Jose Maria, sendiarekin. Egun handia zen hura On Jose Mariarendako. Markinako auzo bat da Barinaga, On Jose Mariaren jaioterria, eta hantxe eman zuen lehenengo meza. Mariak, arrebak, gogoratzen duen moduan, "pozik geunden egun hartan, hura ere pozik zegoen. Bezperan, Gabon Zahar Egunean, gure baserrian, Itxurben, hark gonbidatutako lagun mordoa izan genituen, ospatzen. Eta meza egunean ere jende mordoa etorri zen elizara; eta familia-



kook, ospatzeko, Barinagako tabernabaten egin genuen bazkaria".

Argazkian agertzen direnak hauexek dira, goitik hasita, ezkerretik eskumara: On Jose Mariaren aita, Jose Luis Arizmendiarieta; ondokoa Jesus Arizmendiarieta da, On Jose Mariaren analetako bat; eta erdian

dagoen neskatila, Maria Arizmendiarieta, haren arreba; ondoan, Patxi Arizmendiarieta, hirugarren anaia; eta haren ondokoa On Jose Mariaren ama da, Tomasa Madariaga. Eta jakina, denen aurrean eserita dagoena, On Jose Maria Arizmendiarieta bera da. Barinagan lehenengo meza hori

eman eta gutxira etorri zen Mondragoera.

**Argazkia:** Arizmendiarieta familia  
**Informazioa:** Maritxu Oregi eta Maria Arizmendiarieta  
**Urtea:** 1939

## NOLA ALDATU DIRENGAUZAK

Arrasate  
pasealekua,  
ala zer ote?

**I**ndalecio Oianguren ek hainbat argazki interesgarri atera zituen orain dela urte asko, eta horien bitartez Arrasateko kale, plaza, baserri edo ikuspegiak izandako aldaketak ikus ditzakegu.

Argazki batzuk kokatzea zaila izaten da. Argazki hau nondik aterata dagoen argi dago, baina ikusgarria da zenbat aldatu den. Eskerrak elizari, bestela ezin asmatu.



± 1920 Arrasate pasealekua dezente aldatu da azken urteotan. Goikoa argazkiaren egilea da, Indalecio Oianguren.



2001 Gaur egungo argazkietan etxeak ikusten ditugu nonahi. Eta etxeak bakarrik ez, autoak ere leku guztietan azaltzen dira.




**Sail eta etxebizitzaren salmenta Eskoriatzan**

Udalatx  
Inmobiliaria

Tel.: 943 79 59 99  
Faxa: 943 79 92 00  
Maalako Errabala, 27 behea-ezk.  
ARRASATE

Garagardo ona, giro hobea



**TXIRRITA**

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

**HIES  
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99



Haizetakoak 1,46 m<sup>2</sup>.

Zenbaki hutsa baino, adimen zabala.



Automobil baten helburua da zu leku batetik bestera eramatea. Baina Peugeot 307 berriaren garrantzitsua ez da ailegatze hutsa, eramaten zaituen espazioa baino. Monobolumenaren leku zabalak eta Berlina baten arimak bat egiten dute 307aren egitura osatzeko, eta, horrela, barrualde zabala, modularitatea eta argitasuna ematen dizkizu. Termikoki isolatutako haizetakoak beroa pilatzea ekiditen du, eta sabaiaren altuerak eta aulkien arteko lekuak bidaiari-leku ezin hobe sortzen dute, erosotasunaren aukera guztietara irekia.

Peugeot 307 gama: gasolina 75 ZPtik 138 ZPra (1.981.000 pezetatik/11.906.05 eurotik). Diesela HDI 70 ZPtik 110 ZPra (2.298.000 pezetatik/13.811.26 eurotik)

**PEUGEOT 307. EZ DA ZENBAKI HUTSA.**

## ETORMOBIL

Otaola etorbidea 22  
Tel.: 943 20 09 66  
EIBAR

## EKOMOBIL

Zaldispe auzoa z/g  
Tel.: 943 79 50 71  
ARRASATE

**307**   
**PEUGEOT**

Kalitatea • Aukera zabala • Harreta pertsonala



*Zer falta zaizu  
zure sukaldeaz gozatzeko?*

**iKER**

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 